

Sumindura eragin duen erabakia

Iruñeko talde bortxaketaren egileak aske uzteko erabakiak protestak ekarri ditu, eta mobilizazio jendetsu horietan sumindura igarri da. Reyes Goikoetxea abokatuaren ustez, justizia arloan “genero ikuspegiaren izpirik ere ez” egotearen konfirmazio bat izan da Nafarroako auzitegiaren autoa. Bestalde, erreportaje berean, eskualdeko sei emakumek albistearen harira izan dituzten sentipenak eta iritziak plazaratu dituzte. • 2-3



Kulturalak Bigarren B Mailan ospatuko du mendeurrena

Durango | 2019an 100 urte beteko dira Durangoko Kulturala sortu zenetik eta jokalariek oparirik onena egin diote klubari Bigarren B Mailara igota. 12 urte joan dira maila horretan azkeneko jokatu zutenetik.

• 20. orrialdea



LUIS ITURRIOZ

Zaldibarko
Jaiak
2018


IURRETA
Lanbide Heziketa
www.iurretalhi.eus
idazkaritza@iurretalhi.eus
Tel.: 944 66 88 00

ZIKLOAK

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze Lan Elektronikoa
- Produkzioaren Programazioa
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta

Euskaraz ikasi eta lan egin!

MATRIKULAZIO EPEA
uztailaren 12tik 18ra



“Errealitate sozialaren eta justiziaren artean dagoen distantziaren konfirmazio bat da autoa”

Sanferminetako talde bortxaketaren egileak behin-behinean aske uzteagaz kritiko agertu da Reyes Goikoetxea abokatuak, eta justizia arloa eraberritzeko beharra azaldu du

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Besteak beste, salaketa faltsuen mitoari buruzko berbaldiak eman izan ditu Reyes Goikoetxea Langarika abokatuak (Durango, 1976). Joan zen asteko autoa eta auzia bera aztertu ditu solasaldian.

Zer iruditu zaizu auzipetuak behin-behinean libre uzteko autoa?

Sorpresaz hartu dut, baina epaitegiaren genero ikuspegiaren izpirik ere ez egotearen konfirmazio bat da. Errealitate sozialaren eta justiziaren artean dagoen distantzia egiaztatzen du. Ez dakit epaileek zer formakuntza duten, baina abokatuok duguna tramite hutsa da. Urtean ordu eta erdikoa izaten da. Abokatuen kolektiboan kontzientziazio falta dago, baita genero biontziazioaren inguruko zerranda berezietan dauden abokatu askoren artean ere. Duela gutxi indarkeriari buruzko epaitegi bateko titularra zen epaile emakume bat ezagutu nuen. Biktimei eta erasotzaileei ematen zien tratua desorekatuagatik eta sententzia beldurgarriak emateagatik zen ezaguna. Gero jakin nuen genero indarkeriari lotutako hezitzailea zela! Ikastaro batez ez da nahikoa, kontzientziazioa beharrezkoa da. Legeak interpretatzeko tarte bat ematen dio epaileari, eta interpretazio hori eskema mentalaren arabera da. **Hala ere, legezko gertaera da auzipetuak libre uztea.**

Legeak dio behin-behineko kartzelaldian urte bi pasa badituzte, kalera irten ahal direla. Baina ez

dut autoagaz bat egiten, behin-behineko espetxealdia zigorraren erdira arte luzatzea ere legezkoa litzatekeelako. Eta horrelako kasuetan luzatzea izaten da ohikoa. Zigor bat egotea nahikoa motibo izan beharko litzateke.

Bost gizon horiei ezarritako neurriak nahikoa direla uste duzu?

Orain diote ez dagoela iheserako arriskurik, ezta delitua errepikatzeorik ere. Baina badituzte espedienteak antzerako delituengatik. Egin dutena euren eskema mentalagaz doa, matxismoagaz, ez da gertakari soil bat. Bestalde, pasaporteak kendu diete, baina Europar zehar bidaiatu ahal dute, eta baimena eskatuz gero posible da ematea, hegazkinetara joan-etorriko txartelak aurkezten badituzte. Eta bueltatzen ez badira, zer? Ez zait nahikoa iruditzen, kartzelan egotea litzateke nahikoa. Gainera, Madrilerara joan ezin diren arren [han bizi da bikti-

“

Legeak interpretatzeko tarte bat ematen dio epaileari, eta hori eskema mentalaren arabera da”

ma], biktimari kalte egiteko hainbat modu eduki ditzakete.

Jende askok justizia eza salatu du sare sozialetan, eta zenbaitek justizian ez dutela sinesten ere bai, Nagore Laffageren amak kasu.

Jendeak iritzia eman behar du, eta

oso ondo ikusten dut. Errealitate soziala justizia baino askoz aurrerago doala erakusteko balio behar du.

Beraz, justizian aldaketak behar dira gaur egunera egokitzeko.

Kode penalak gabezia asko ditu, eta aldaketa integral bat beharko litzateke. Baina, lege aldaketa baino, pentsaera aldaketa bat behar dela deritzot, era urgentean. Kaltetik bakarrik joan eta atzetik mutil batzuk dituenen neska batek sentitzen duen beldurra ez dute sentitzen gizonak neskak atzetik edukitzean, eta eskema hori, orokorrean, ez da existitzen justizia eremuan. Hori aldatzen ez den bitartean, horrelako erresoluzioek irreten jarraituko dute.

Era horretako erresoluzioek ez al dute biktimaren bertsioa kaltetzen?

Sententzia begiratzen badugu, biktimaren bertsioa ez da zalantzan jartzen. Kanean "Nik sinesten dizut" esaten da, baina epaileek ere sinetsi dute. Erredaktatuta dagoen emakumearen kontakizunak izua eragiten du. Baina, bortxaketa esplikatzen arren, abusua dela erabaki dute. Diote ez dagoela delituaren jarraitkortasunik, eta mehatxurik ere ez. Bost gizonen atari batean sartu eta zuk gura barik eurek gura dutena egitea ez da mehatxua? Suminduta nago horregatik. Orain, aske uzteko autoan, zigortuak kaltetu lez hartzen dituzte, eta emakumearen sinesgarritasuna zalantzan jarri dezake, maila sozialean batez ere.

Gainera, telebistan euren bertsioari lekua egingo diotela entzun da.

Desagertu beharreko kontzientzia



bati lekua egingo zaio, matxismoari. Indarkeriaren apologia egingo dute. Errugabetasuna defendatuko dute, eta horrek biktimaren egoeran eragingo du. Ez errekursoei begira, frogak sententzian daudenak izango baitira, baizik eta biktimaren biziraupenari lotuta. Neska txikituta aterako da. Bote-re publikoek gai hau kontrolatu beharko lukete.

Salaketa faltsuak ez direla kasik existitzen adierazi izan duzue berbaldietan.

2017an, salaketa faltsuak %0,007

ziren, Estatuko Fiskaltzaren datuen arabera. Gertatzen dena da auzien artxibaketa asko egoten direla, guztien %40 inguru, eta salaketa faltsutzat ulertzen dituztela askok, asmo txarrez. Kontua da epaileak uste duela ez dagoela froga nahikorik aurrera joateko, baina horrek ez du esan gura deliturik ez dagoenik. Izan daiteke emakumea ez dagoelako prestatuta, lekukoek egindako testigantzak direlako, emakumeak eraso ukatu duelako, emakumea ere salatua izango dela mehatxu egongo delako, besteak beste.



Kalera atera dira, erabakiagatik sumindura agertzeko

DURANGALDEA • M.O.

Joan zen egunean eman zen jakitera talde bortxaketako auzipetuak libre uzteko erabakia, eta jendea segituan atera zen kalera protesta egitera, mugimendu feministak eta hainbat udalek deituta. Sumindura igarri zitekeen eskualdean egindako mobilizazioetan. Durangon manifestazio jendetsuak egin zituzten egunean eta barikuan, eta epaitegi aurreraino eraman zuten euren aldarria. Elorrión, Otxandion, Zaldibarren eta Zornotzan ere egin zituzten elkarretaratzeak.



**GOTZONE
BARANDIKA**

EHUko irakaslea (Durango)

"Gizarteak hartu beharko du justizia lortzeko ardura"

La Manada kasuaren inguruan gertatzen ari dena amorrugarria, nazkaga-

rria eta beldurgarria da. Horretan bat gatoz gehienok. Eta horrela izanda, nekez onar daiteke bortxatzaileek jasotako sententzia. Hori ulertu ezinenez genbiltzanean, predatzaile sexualak fidantzapean irten dira espetxetik. Legea aldatu beharra al dago? Seguru baietz. Baina legea ez da eraginkorra izango epaileren batek orgiatzat jotzen badu gainerakoentzat bortxaketa ukalezina dena. Legea ez da eraginkorra izango La Manadako kideak, eta haien defendatzaileak, ez badira jabetzen haien portaeraren munstrokeriaz. Justizia ez bada izan bidezkoa, gizarteak berak hartu beharko du justizia lortzeko ardura. Eta nire iritzian, giza arbuioa da bide bakarra. Gure artean dauden erasotzaile sexualak gure mespretxua sentitu behar dute: gure eten gabeko mespretxua.



**MIREN
LARREA**

Antzerkilaria (Zornotza)

"Argi erantzun digute emakumeoi, masiboki piztu den olatuari"

Mugikorra borborrean, "5 bortxatzaileak kalean", mezuak etengabe.

Haserrea. Epailerek argi erantzun digute emakumeoi, aurten masiboki piztu den olatuari: patriarkatuak markatzen ditu denborak eta posizioak, "zuek etzun hor ta kabidu lekuen". Nazka.

Justizia patriarkalaren babespean, guardia zibila eta militarra. Atari zein komisarietan, emakumeon gorputz biluziak *versus* gorputz polizialak. Poetak erail eta emakumeak bortxatzen dituzten trikorniodun mamuen inpunitate berriz. Gorrotoa.

Kazerolada dagoela dio mezu batek, trasteak hartu eta kalera. *Patatan* bost panpin zintzilikaturik, Justizia poetikoa, hori bakarrik dugu eta. Zaratatsu, emakumeekin batu naiz. Zuokin indarberritzen naiz. Kaleak eta gauak geureak direlako, etengabe beteko ditugu. Ez gara haiek emandako lekuan "kabitzen", ez dugu onartzen. Segi dezagun elkarrekin erantzuten. Handiak zarete.



**ISABEL
DE BLAS**

Soziologoa (Elorrio)

"Emakumeoi desiratzea ukatzen zaigu hainbat jazarpenen bitartez"

Kasu honetako bortxatzaileak kalera tzeke marko legala existitzea larria iruditzen zait. Batez ere bere ondorioak: emakumeoi beldurra emateko

saiakerak, gure hitza dudan jartzen jarraitzeko legitimazioa, libreki mugitzeko onezpen eza, bortxatzeko "barra libre" moduan ulertzea... Gainera, sententzia, sexu harremani onespina ematean ala ez ematean oinarritzea ideologia matxistaren isla da; kontsentitzea eta desiratzea ez da gauza bera, baina jendarte patriarkal honek ez du hori onartzen. Bai esaten ez bada, ezetz da! Emakumeoi desiatzea ukatu egiten zaigu hainbat jazarpenen bitartez, eta oso kezagarria da gizonezko batzuek botere harreman desorekatuak desiratzea eta horregaz gozatzea. Jaiak jendartearen isla dira eta edozelan harremantzeko gune bilakutzen dira sarri; gero eta zabalagoa den Mugimendu Feministak aldarrikatzen duen autodefentsa feminista eta jai ereduaren eraldaketatik etorriko da emakumeok libreki eta desio dugun bezala gozatzeko aukera.



**AINHOA
ZABARTE**

Kazetaria (Zaldibar)

"Justizia hau bada, ez da gurea, eta hauxe da gerra"

Erosketak egiten, tabernan edo etxera bidean. Astebete barru hasiko diren sanferminetan. Kalean, aske. Edozein

tokitan aurki ditzakegu 'La Manadako' bost bortxatzaileak. Kalean, aske. 6.000€ eta 500km aitzakia hartuta saldu gaituzte oraingoan. Bederatzi urte zituzten ziegan betetzeko eta kalean ditugu dagoeneko. Erabakia jakin bitartean, kalean, aske.

Sumindura, nazka, amorrua. Hase- rrea eragin digu bost bortxatzaileak kalean ikusteak. Oihartzun handiko kasua da hau, baina ez da lehenengoa eta, zoritxarrez, azkena ere ez. Gizonek gizonentzako eraikitako sistema honetan eman digute abisua, argi jaso dugu mezua.

Legea hau bada, justizia hau bada, ez da gurea, eta hauxe da gerra. Legeak aldatu behar badira, argi dago, kasu honetan bezala, konstantziaz kalean egon behar dugula. Oraingoan bezala, ukabilak estutuz eta eztarria urratuz egingo dugu aurre. Geuk askatu behar dugu gure burua, inork ez gaitu eta askatuko.



**MARISA
BARRENA**

**Andereak
elkarteko kidea (Durango)**

"Injustizia kasu argi bat iruditu zait, probokazio puntu bategaz"

'La Manada'koak fidantzapean aske uztearen albisteak amorrua eta haserrea sortu dizkit. Injustizia kasu argi bat iruditu zait, probokazio puntu bategaz Iruñeko jai bezperetan. Zorionez, herritarren erantzuna berehalakoa izan da gure inguruan, Madrilan, Galizian zein Sevillan. Sentsibilizazioa gehitzen doan seinale; hasi gine- nean baino askoz gehiago gara.

Hala ere, mobilizazioez gainera, sistema patriarkal zapaltzaile hau aldatzeko modua bilatu behar dugu, hezkuntzatik hasita. Gazteek por- notik haratagoko sexu heziketa jaso dezaten. Horrez gain, ondo legoke, Iruñean bezala, udalek eta mugimen- du feministek, elkarlanean, sexu erasoei aurre egiteko estrategiak diseinatzea eta martxan jartzea. Jus- tiziaren arloan, berriz, azterketa sa- kona behar da legeen balio matxistak aldatzeko.



**AINHOA
OLASO**

**Ikaslea eta Bilgune
Feministako kidea (Durango)**

"Sistemak ez du lehenesten emakumeon segurtasuna"

Erabaki honek argi uzten du sistema judizialak ez duela emakumeon se- gurtasuna lehentasunez hartzen. Bai-

na hau beste kasu bat besterik ez da, egunero sufritzen dugun indarkeria guztiaren aurkako borrokan koka- tzen duguna.

Hala eta guztiz ere, ez dugu bor- roka feminista diskurtso puniti- bistak indartzeko erabiltzerik nahi. Jendarte feminista bat eraikitzeko etorri da Euskal Herriko mugimendu feminista.

Gainera, garrantzia eman nahi diogu erasoan jasan duen emakumeari, protokoloetan azken aldi honetan bereziki lantzen ari garen kontua da hau. Zein erantzun eman behar zaio bortxatu egin duten emakume bati? Eta, are gehiago, justiziak ema- kumearen hitza kontuan hartu ez duenean?

Horregatik, instituzioek apustu au- sarta egin beharko lukete, eta logika patriarkarragaz hausteko konpromi- soa hartu.

Tentsioa Abadiñoako osoko bilkuran, Muntzaratzerako sarbideetako arazoari konponbiderik eman ez zaiolako

Jose Luis Navarro alkatearen arabera, litekeena da Muntzarazko biribilgunea legegintzaldi honetan ez egitea

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Muntzarazko auzotar talde bat ekaineko osoko bilkura joan zen alkateari azalpenak eskatzeko asmoagaz. Txaleko islatzaileak jantzita, auzorako sarbideetako arazoaz galdegin zioten. Jose Luis Navarro alkateak legegintzaldi honetan biribilgunerik ez dela egingo erantzun zien. "Foru Aldundiagaz adostasuna egongo dela suposatuta ere, prozesuaren epeak kontuan hartuta, litekeena da legegintzaldia amaitu aurretik biribilgunerik ez egotea", esan zuen. Aldundiagaz 1,2 milioi euroko aurrekordioa zuen udalak biribilgunearen eta errepedearen konponbidearen proiekturako. Navaroren berbetan, baina, Bizkaiko Aldundiak errepedearen eskuduntza Atxondoko mugaraino luzatzeko eskaintza egin die (800 metro). Hori dela-eta, akordioa ostera ere negoziatzen ari dira.

Aurretik, EH Bilduk udalaren "utzikeria" salatu zuen. "Udalak ia 700 herritarren sinaduragaz aurkeztutako mozioaren aurka bozkatu zuen, eta, hala ere, berdin jarrai-



Auzotarrak txaleko islatzaileekin, Abadiñoako osoko bilkuran.

tzen dugu, ilara luzeekin, semaforoaren ziklo txarrekin eta arrisku egoerekin" azaldu zuen Mikel Urrutia zinegotziak. Dokumentuak ezkutatu izana aurpegiratu zion, gainera, Urrutiak udal gobernuari. "Apirilaren 9az geroztik du udal gobernuak errepedean esku hartzeko eskubidea; apirilaren 24ko osoko

800 metro gehiagoren eskuduntza eskaini dio Aldundiak udalari, 100.000 euroren truke

bilkuran ere galdera berdina egin genuen eta gezurra esan zitzaigun. Azalpen bat gura dugu".

Haserre, kalera

Muntzarazko auzotarrek semaforoa behintzat "ahal bait arinen" konpontzeko exijitu zioten alkateari, eta, bitartean, protestekin jarraituko zutela esan zuten. Esaterako, atzo protesta egin zuten Muntzarazko sarbideetako semaforoetan.



Urrian hasiko dira sanfaustoak.

700 euroko saria San Fausto jaietako kartel irabazlearentzat

DURANGO • M.O.

Durango Udalak martxan ipini du San Fausto jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Artista, afizionatu eta profesional guztiek har dezakete parte, eta abuztuaren 31 izango da lanak aurkezteko epemuga. Irailaren 14an emango dute jakitera zein den irabazlea, eta 700 euro emango dizkiote egileari.

Aurkeztutako lanen artean, epaimahaiak zazpi aukeratuko ditu, eta gero herritarren botoagaz erabakiko da garailea.

Tabirako jaiak eta Sorginola gaztetxeko urtemugak bat egingo dute asteburuan

DURANGO • M.O.

Orain hiru urte okupatu zuten Tabirako Fundifes enpresa zaharreko bulegoen eraikina, auzoko San Pedro jaiak ospatzen zebiltzanean, hain justu. Horregatik, gaztetxearen urtemugak jaiekin bat egingo du berriro. Bihar, zapatua, marmitako txapelketa jokatu da. Ehunka lagunek hartzen dute parte urtero. Bestalde, gaur iluntzean tortilla jana egingo dute. Domekan, Angelman elkartearen aldeko eguna izango da, bizikleta martxa tartean.

Sorginolakoek Berbaz izeneko aldizkaria aurkeztuko dute gaur, 18:30ean, eta, ostean, Bartzelonako La Tecla gaztetxeagaz senidetuko dira. Gaur Djak egongo dira, eta bihar, kontzertuak.

ADEMBI elkartearen aldeko elkartasun azoka egingo du domeka honetan EAJK

Esklerosi anizkoitza duten pertsonen alde lan egiten duen elkarte bizkaitarrak 30 urte daramatza behar

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

11:00etan hasiko da elkartasun azoka, eta iluntzera arte iraungo du. Traña-Matienan egingo dute, Oxford eta Atsegin tabernen artean. Bertan, bigarren eskuko hainbat material egongo da erosteko moduan: arropa, liburuak eta diskoak, besteak beste. Bilduko den dirua ADEMBI elkarteari emango

diote, bere betebeharreran laguntzeko. Abadiñoako EAJK antolatzen duen hirugarren elkartasun azoka izango da aurtengoa. Lehenbiziko bietan Geube elkarteari eta Abadiñoako Elikagai Bankuari eman zizkioten irabaziak. ADEMBI hiru hamarkada baino gehiago daramatza esklerosi anizkoitza duten pertsonekin behar.



Ekimenaren sustatzaileak elkartasun azokaren aurkezpenan.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko ekainaren 29a
16. urtea - 726. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Aramotz auzoan 3.800 metro karratuko parke bat zabaldu du udalak; zentro zibikoa, momentuz ez

Udalak nabarmendu du parke berriagaz 14.000 metro karratu berdegune izango dituela auzoak; Herria elkarteak erreklamazioa egin du zentro zibikoagatik, baina udalak dio gaur egun "ezinezkoa" dela gune hori eraikitzea

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Astlehenean inauguratutako parke berriagaz, 14.000 metro berdegune dituzte Durangoko Aramotz auzoan. Hiltegia zegoen lekuan parke bat zabaldu du udalak, 3.800 metro karratuko, eta urte biren buruan auzoko berdegune metroak bikoiztu direla nabarmendu du Mari Jose Balier hirigintza zinegotziak. Datozen hileetan txintxaunak eta zabuak ipiniko dituzte bertan, eta hurrengo udarako urtxorroak ere bai.

100.000 euroko kostua eduki du proiektuak. Pilar Rios alkateordeak azaldu du genero ikuspegia kontuan izan dutela, adibidez lurtean margotuta dauden jolasetan. Gainera, hiltegia kenduta, puntu beltz bat desagertu dela azpimarratu du, emakumeen partaidetzagaz landu zen Hiri Debekatuaren Mapan zehaztu zen bezala.

Partaidetzari lotuta, Aitziber Irigoras alkateak esan du Herria auzo elkarteagaz edukitako hartu-emanen ondorio dela parke berria. Hain

justu, elkarteak erreklamazioak egin ditu azken egunetan. "Non dago gure umeen jolas-parkea?" eta "Zentro zibikoa, noizko?" aldarrikapenak zituzten pankartak eskegi dituzte auzoan. Irigorasek dio ez

dutela ulertzen polemika. "Gaur egun ezinezkoa da zentro zibikoa eraikitzea. Baina plan orokorraren barruan dago aukera hori eta elkarteak eta auzotarrek badute horren informazioa". Balier haserre

agertu da elkartearen jarreragaz. "Ez dugu inoiz esan zentro zibikoa egingo ez denik", esan du. Uneotan auzoa urbanistikoki eraberritzeko Berritu Aramotz izeneko proiektua onartzekotan dago udala.



Udaleko arduradunak eta Aintzane Bengoetxea aparejadorea, astlehenean, parkearen aurkezpenan.

Durangon disuasiorako 6 aparkaleku eraiki gura ditu udalak, eta Mikeldikoa da aukera posibleetako bat

EAJk, PSE-EEK eta PPK ez dute babestu parkinaren kontrako auzotarren mozioa; EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak, bai

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Martitzeneko bilkuran udalak ez zuen babestu Mikeldi inguruetakoz bizilagunek aparkalekuaren aurka aurkeztutako mozioa. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak soilik egin zuten euren alde. Gobernu taldeak mozio alternatibo bat aurkeztu zuen, Durangon aparkaleku arazoari aurre egiteko parkingen ikerketa egiteko. Bulego Teknikoa herrian disuasiorako 6 aparkaleku sortzea aztertzen dabil, eta Mikeldikoa da aukera posibleetako bat.

Ortzi Egiak egin zuen berba plataformaren izenean. "Aparkalekua atzerapauso nabarmena da auzoaren ongizate bizitzaren ikuspegitik". Auzotarrek diote trafikoa, kutsadura, zarata eta segurtasun eza handituko lituzkeela. Bestalde, disuasiorako aparkalekuek durangarren arazoa ez luketela konponduko uste dute, kanpotik datozenentzat bideratzen direlako.

EH Bilduk sustatu eta udalak onartutako Parte-Hartzerako ordenantzari esker, bilkuran mozioa



Mikeldi inguruko berdegunean 26 plazako aparkalekua eraiki gura dute.

defendatu duen lehen herritarra da Egia.

Goiztidi Diazek (EAJ) azaldu zuen udal inkestan agertutako arazo handiena aparkaleku falta dela. "Ezin dugu esan aparkaleku hori egingo ez denik". Pilar Riosek (PSE) gogoratu zuen lur horretan babe-

"Aparkalekua eraikitzea atzerapauso nabarmena da auzoaren ongizate bizitzaren ikuspegitik"

seko 48 etxe eraikiko direla, eta berdegunea behin-behinekoa dela.

Oposizioarentzat "lotsagarria" da gobernuak ordezko mozio bat aurkeztea. "Gobernu taldeak bizkarra ematen die auzotarrei", kritikatu zuen Julian Riosek (Herriaren Eskubidea). Hurrengo izan zen Ion Andoni del Amoren (EH Bildu) galdera: "Zer gura dugu, berdeguneen Durango ala zementuarena?".

Ermodo barruko parkea zabaltzeko aukera aztertuko dute udalean

DURANGO • M.O.

EH Bilduk aurkeztuta, Ermodo eta Tronperri kaleen arteko barruko parkearen inguruko mozioa landu zuten bilkuran. Alderdiak bilera bat egin zuen aste batzuk lehenago zenbait auzotarrekin, eta bertan atera zen ideia hori. Herriaren Eskubideak EH Bilduren mozioaren alde egin zuen, baina EAJk eta PSE-EEK ordezko bat plazaratu zuten, eta, azkenean, honek egin zuen aurrera, alkatearen botoak berdinketa apurtuta. Horren arabera, eremuari buruzko ikerketa bat egingo du udalak, bideragarritasuna eta segurtasuna kontuan hartuta. Gainera, berdintasuna ere kontuan hartuko dute, puntu beltzik ez sortzeko. Bizilagunei hirigintza batzordean parte hartzeko aukera emango diete.

Mozio biek antzekotasun handiak zituzten. Desberdintasunetako bat zen EH Bilduk auzoan bertan bilera bat egitea proposatzen zuela, udalera gonbidatu beharrean.



TAOren kontratua amaituta dago.

TAO zerbitzua partaidetzagaz berriztea gura du Herriaren Eskubideak

DURANGO • M.O.

Herriaren Eskubideako Jorge Varela zinegotziak bilkuran esan zuen 9 hile direla TAO kontratua agortu zenetik, eta partaidetzagaz berriztea proposatu zuen. Hala ere, mozioa EH Bilduk bakarrik babestu zuen. Dani Maezturen iritziz, "aldaketak ezin dira parte-hartze barik egin". Euskotrenen parkina "hutsik" egoten dela ere kritikatu zuen, Mikeldiko gaiagaz lotuta.

Pilar Riosek (PSE-EE) azaldu zuen abenduan foro bat egin zutela. Aitziber Irigoras alkateak (EAJ) oposizioa kritikatu zuen, partaidetza "eurek soilik egiten dutena" dela uste dutela esanez.

Zornotzako eta Mallabiko eskolak batuta, 12 dira dagoeneko Berton Bertokoa dinamikako ikastetxeak

Menuetan bertako produktuak sartzen hasteaz berba egin zuten catering enprekin, baina asmo hori ez ei da bete

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Durangaldeko eskola publikoetan bertako eta sasoiko produktuak jatearen aldeko Berton Bertokoa dinamika 12 ikastetxek osatzen dute dagoeneko, Zornotzako Larrea eta Mallabiko Learreta-Markina batu ostean. Eguaztenean eman zuten horren berri, Durangon,

ikasturtearen balorazio lez egindako prentsa agerraldian. Ekainean erreibindikazio ekintzak egin berri dituzte, Atxondon cateringari astebetzez egindako plantoa kasurako. Eskola kontseiluen babesaz aparte, eskualdeko alderdi politiko guztien atxikimendua edukitzea ere nabarmendu zuten.

Aste Santuaren bueltan catering enprekin batzartu ziren Berton Bertokoako kideak, Urkiola Landa Garapenaren bitartez. Ikasturtea amaitu bitartean, sukaldea zuten ikastetxeetako menuetan bertako produktuak sartzen hasteaz berba egin zuten, baina asmo hori ez ei da bete. "Irailean berriren bat izatea espero dugu", diote.

Bestalde, Durangoko Zabala-rran, Iurretako Juan Orobiogotian, eta Atxondo eta Zaldibarko eskoletan ez dute sukaldetik. Azpiegiturak bermatzea eskatu dute Eusko Jaurlaritzan eta udaletan. Atxondo da ildo hori aurreratuen daramana, Jaurlaritzak proiektua egin duelako eta udalak ere dirulaguntza bermatu duelako. Beste hiruren kasuan, Hezkuntza Sailak aurreikuspena egiteko talde teknikoak bidali zain daude.



Berton Bertokoa dinamikako kideak Durangoko Pinondo Etxean, eguazteneko agerraldian.

Lau gazteren sormen lanari esker, hamaika apal berri ditu Caritasen egoitzak

Lan merkatura sartzeko zailtasunak dituzten gazteei laguntzeko Behargintzak sustatu duen proiektuan aritu dira



Erdian, proiektuko gazte bat eta, alboetan, Caritaseko eta Amankomunazgoko ordezkariak.

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Caritasek Durangon duen Etxepel egoitzak egurrezko hamaika apal berri ditu, lau gazteren sormen lanari esker. Behargintzako Txertatu Merkatuan egitasmoaren barruan jardun dute gazteek.

Lan munduan sartzeko zailtasunak dituztenei laguntzea da proiektuaren helburu bat. "Lanik barik zeuden eta ez zekiten ondo zein bide hartu lan merkaturatu. Tailer honen bidez, euren burua ezagutzeko aukera izan dute, euren gaitasunak zeintzuk diren ikasten eta ahalduz, azaldu du Asier Ordorika programako hezitzaileak apalak Caritasi emateko antolatuta duten ekitaldian. Barne esplorazio horregaz batera, talde lanean aritzeko gaitasunak landu dituzte 18 eta 24 urte arteko gazteek.

Caritasen beharrianak jakin ostean erabaki zuten egurrezko apalak egitea. Dena birziklatutako materialekin egin dute, egitasmoaren beste zutarrietako bati jarraituz.

Berrioiz guraso elkarteak txupinazoa jaurtita hasi dituzte Berrizko jaiak

"Jai gunetik" trafikoa pasatzea kritikatu du EH Bilduk



Uztailaren 2ra arte jai giroa izango da nagusi Berrizen.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrioiz guraso elkarteak txupinazoa jaurtita hasi dituzte berriztarrek aurtengo San Pedro eta Santa Isabel jaiak.

Bihar egun handia izango da berriztarrentzat, Kuadrillen Eguna ospatuko dute eta. Besteak beste, paella lehiaketa, gazte bazkaria eta kuadrillen jaitsiera egingo dituzte.

Aurtengo jaiak, baina, polemikagaz hasi dira Berrizen. EAJk "jai gunearen erditik" trafikoa

pasatzeko erabakia hartu izana kritikatu du EH Bilduk. Oposizio-ko kideek jakitera eman dutenez, gobernu taldeak alkatetzak dekretuz erabakia hartuta, Iturritza kaleko errail bat zabalik egongo da jaietan. "Arduragabekeria iruditzen zaigu, eta guk ez dugu erabaki hau gure gain hartuko. Gure ustez, zonalde honetan autoak eta autobusak ibiltzeak arrisku handia dakar", amaitu dute ezker abertzaleko kideek.

Carmen Marcok hartuko du del Pino zinegotziaren lekua

PSE-EEko Francisco del Pinok maiatzean utzitako zinegotzi kargua hartuko du Carmen Marco berriztarrek



Carmen Marco izango da PSE-EEko zinegotzia

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Maiatz hasieran emakume bati eraso egin zioten Berrizen, eta uszteko erasotzailea Francisco del Pino PSE-EEko zinegotzia izan zen. Dimisioa aurkezteko eskatu zion Bizkaiko PSE-EEK zinegotziari, eta berriztarrek dimititu egin zuen.

Joan zen astean jakitera eman zuten, Carmen Marcok hartuko du del Pinoren toki, eta legegintzaldi amaierara arte bera arituko da zinegotzi lanetan. "Legegintzaldi osoan Franegaz lanean aritu

naiz, eta deitu zidatenean erronka onartzea pentsatu nuen", adierazi du Marcok.

Marco valentziarra den arren, hamabost urtez bizi da Berrizen eta herri-tarrak ordezkatzeko aukera izateaz "oso pozik" dagoela adierazi zuen. "Ilusio eta gogo handiagaz nago, lan egin gura dut eta lan egingo dut", gaineratu du Marcok.



FRANCISCO DEL PINO

Turismo gidari bat hartuko du Otxandioko Udalak gerra zibilaren inguruko ibilbidean bisitak antolatzen

Ibilbidea gidari baten laguntzagaz egiteko aukera eskainita, turismo arloko eskaintza sendotu gura dute



Andikontan hasi eta Elizabarrin amaitzen da gerra zibilaren inguruan sortutako ibilbidea.

OTXANDIO • J.D.

Orain urte bi, santamaña jaietarako ekintza moduan, gerra zibilak Otxandion utzitako lorratza erakusten duen ibilbide bat sortu zuen udalak. Harrera ona izan

zuen eta, harrezkero, gehiagotan antolatu dute, baina beti kanpotik egindako eskaerei erantzunez eta ez ekintza finko moduan. Egoera hori aldatzeko eta turismo arloan duten eskaintza indartzeko, pauso

berri bat emango dute, turismo gidari bat kontratatuzko lan poltsa sortuta. Izena emateko interesatuta dauden pertsonak udal bulegotik pasatu daitezke oinarriak jasotzera zein eskari orriak betetzera.

"Herrira etorri diren turistek galdetu izan dute Otxandion zer ikusi zitekeen. Une honetan turismoari begira ez dugu eskaintza sendorik eta gerra zibilaren inguruko ibilbideak harrera ona izan duenez,

gidari batez zerbitzu hori askoz konpletoagoa izango zela pentsatu genuen. Beharbada hilean behin bisita bat antolatu eta gidariak kudeatu dezake", adierazi du Irati Axpe zinegotziak. Gerra zibilaren inguruko ibilbidea Andikona plazan —bonbardaketa jasan zuen tokia— hasi eta Elizabarrin amaitzen da, herriguneko beste hainbat interesguneetatik igarota.

Ekimena ondo irteten bada, ate bat zabalik utziko dute eskaintza herriko beste interesgune batzuetara

"Gidari batez zerbitzua konpletoagoa izango zela pentsatu genuen", dio Irati Axpe zinegotziak

ra zabaltzeko etorkizunean. Baina, momentuz, gerra zibilaren ingurukoan zentratuko dira.

Bestelako lanak

Kontratatutako pertsonak beste zeregin bat ere izango luke. Udala frankismoko biktima izandako herritarren testigantzak jasotzen ari da. Argentinako kereilara aurkeztuko duten txosteneko osagai bat izango da. Langile berriak testuak itzultzen edo transkribatzen lagunduko du.

Hiru bizikleta elektriko erosiko ditu Otxandioko Udalak

OTXANDIO • J.D.

Orain hilabete batzuk, udaleko langileentzat ibilgailu elektriko bat erosiko zuela iragarri zuen udalak. Joan zen asteko udalbatzarrean, ibilgailua ez ezik, hiru bizikleta elektriko ere erosteko kreditu aldaketa bat onartu zuten.

Asteon egin dituzte bizikleta elektrikoak erosteko gestioak. "Udaleko langileek ondo hartuko duten erabakia dela uste dugu. Erosoagoak dira herriguneari ibiltzeko, eta sarritan joan-etorriak gehienak herriguneari bertan izaten dira", adierazi du Urtzi Armendariz alkateak.

Neurri horregaz, Otxandio jasangarri baterantz pausoak eman gura ditu udalak. Jasangarritasun ereduaren sustatzea da etorkizunera begira duten lan ildoetako bat. Horrela, ibilgailu elektrikoaren kasuan, gaur egun darabiltenetako bat sarritan matxuratzen denez, bere erleboa ibilgailu elektriko bat izatea gura dute. Udalak industrialdean duen lokalean kargatuko du argindarra.

Ekintza bandalikorik bako Otxandio gura dute eskolako ikasle gaztetxoek

Herria zaintzea aldarrikatzen duen pankarta eskegi dute udaletxeko balkoian



Otxandioko eskolako ikasleak eta udaleko zinegotziak joan zen asteko udalbatzarrean aurretik, pankarta balkoian eskegitzen.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandion hainbat ekintza bandaliko gertatu dira azkenaldian, batez ere pilotaleku inguruan. Zikinkeria ere pilatu da gune horretan. Ekintza horien atzean gazteak daudela susmatuta, hezkuntzan eragin gura izan du udalak. Otxandioko eskolako gaztetxoek osatutako Ikasle Batzordeagaz batu ziren egoeraren berri emateko. Hortik

Azken udalbatzarrean aurretik bertaratu ziren eta kanpainaren berri eman zieten zinegotziei

Gelaka banatuta, barikuro eskola inguruko zikinkeria batzea izan da beste ekintza bat

abiatuta, gaztetxoek kanpaina bat jarri dute martxan. Barikuro eta gelaka, eskola inguruko zikinkeria batu dute. Horrez gainera, Otxandio zainduz, herria indartsu dioen pankarta bat eskegi dute udaletxeko balkoian. Joan zen asteko udalbatzarrean aurretik bertaratu ziren eta zinegotziei zein alkateari ekimenaren berri eman zieten.

Elorrion lehenengo ahobizi eta belarriprestak aurkeztu dituzte

Joan zen barikuan egin zuten Elorrioko Euskaraldiaren aurkezpena, herriko plazan



Barikuan aurkeztu zituzten ahobizi eta belarriprestak Elorrion.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen barikuan Euskaraldiaren aurkezpena egin zuten Elorrion, eta bertan lehenengo ahobizi eta belarriprestak aurkeztu zituzten. Euskaraldiko kideek jakitera eman zuten, ekimen honen helburua euskaraz errazago egitea eta euskaraz entzuteko aukerak sortzea izango dira.

Bestalde, herritarren ia %80k euskaraz ulertzen dutela eta %33k

Euskaraldiaren helburua euskaraz errazago egitea eta euskaraz entzuteko aukerak sortzea dira

erabili egiten dutela esan zuten. "Euskaraldiak aukera paregabea emango digu euskararen ulermena oinarri hartuta euskaraz bizitzea errazteko", gaineratu zuten.

Horrez gain, Elorriokoa lantalde zabala dela eta edozein informazio jaso gura duenak elorrio@euskaraldia.eus helbide elektronikora idatzi dezakeela esan zuten.

Durangaldeko Amankomunazgoko euskara arloak Euskaraldia sustatzeko webgunea sortu du. euskaraldia.durangaldea.eus webgunea Durangaldeko euskaldunen komunitate digitala izango dela azaldu dute prentsa oharrean.



Joseba Mujika EAJko zerrendaburua.

Joseba Mujika izango da Elorrioko EAJko alkategaia hurrengo hauteskundeetan

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2019ko udal hauteskundeetan Elorrioko EAJko zerrendaburua berriro ere Joseba Mujika elorriarra izango dela jakitera eman zuten, joan zen astean, jeltzaleek.

Ia zortzi urtez Elorrioko zinegotzi den Mujika bigarren izango da jeltzaleen zerrendaburua. "Oso pozik nago EAJko zerrendaburua izango naizelako. Ardura handia den arren, ilusioagaz nago", adierazi du Mujikak. Horrez gain, bere lehentasuna Elorrioko bizilagunak direla jakitera eman du.

Zuzenbidean lizentziatua da elorriarra eta egun Gipuzkoako Foru Aldundian dabil lanean.

40 emakumek eman dute izena Zaldibarko jaietako brigada feministetan

"Eraso sexistarik bako herria izatea gura dugu Zaldibar", esan dute prentsaurrekoan



Eguaztenean egin zuten agerraldia brigada feministen berri emateko.

ZALDIBAR • A.M.

Iaz eraso sexistaren aurkako protokoloa jarri zuten martxan Zaldibarko emakumeek, eta aurten indartu egin dute. Jaietako brigada feministak sortzea, emakumeek jaietako ahal izateko; 40 emakumek eman dute izena bertan. Protokoloa herritarrentzat

eginiko lanketa dela azpimarratu dute, eta, besteak beste, eraso mo-

laz martxan jarritako eraso sexistaren aurkako protokoloa indartu da aurtengo jaietako brigada

ten deskribapena zehazten du. Biktima izanez gero egin beharrekoa azaltzen du, edo biktima hurbilduz gero, hartu beharreko jarrera. Erasoen aurrean eman beharreko erantzuna ere aipatzen du. "Eraso sexistarik bako herria izatea gura dugu Zaldibar, eta horretarako lanean jarraituko dugu", esan zuten eguazteneko agerraldian.



lazo jaietako irudia.

Gaurko trikiti doinuek mozerro egunari emango diote bidea Amatza auzoan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Trikiti doinuek mozerro egunari emango diote bidea Amatzan, San Martin jaietako harira. Donien Atxa igotzeko batuko dira aurretik, 19:00etan. Dantzarien azken entsegu amaitu ostean, soinu-larietako alaituta, 4. Trikitixa Jaietako hasiko da. Eguna biribiltzeko, afaria antolatu dute.

Biharko, mozerro eguna antolatu dute. Dotore jantzita aurkeztuko dituzte tortillak txapelketera, eta, gero, afaltzeko batuko dira. Bertso eta erronomia doinuek girotuko dute gaua. Domekan, trikitilarien kalejira, dantzarien saioa eta bazkaria egongo dira. Karta txapelketa eta umeentzako jolasak ere bai.

Donien Atxa jasota eta pregoia irakurrita hasi dituzte San Pedro jaiak

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atzo iluntzean eman zioten hasiera aurtengo San Pedro jaietako Donien Atxa igota eta Jai Batzordeko kideek pregoia irakurrita.

Gaur, umeentzako antzerki musikatu egongo da, Stanba Banda taldearen eskutik. 18:00etan tortilla eta bakailao txapelketak jokatu dituzte atxondarrek eta, ostean, afari herrikoian batuko dira.

Zapatuan, mozerro eguna ospatuko dute Apatan. Ura da aurtengo mozerro egunerako Jai Batzordeak aukeratu duen gaia. Bestalde, bihar paella eta mus txapelketak egingo dituzte. 21:30ean, State Alerta taldearen kontzertua egongo da eta, horren ostean, Joxpa taldearen eskutik, erromeria.

Domekan, umeentzako antzerkia eta igel txapelketa egongo dira arratsaldean. Ostean, 18:30ean, pilota partidua egongo da: Titin III.a eta Beroiz Xalaren eta Jaioren aurka. Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuen rantxerekin eta brindisagangaz emango diote amaiera jaietako.



IURRETA

Tellitu-n udaberrian hasiko gara eraikitzen

*3 logelatako
6 etxebizitza*

*2 logelatako
11 etxebizitza*

*Garajea eta
trastelekua barne*



DURANGO LANDAKO GUNEA

*Durangoko herrigunean,
bista ederrekin*

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com

"Gela bat doan erabiltzeko aukera izatea faktore erabakigarria izan daiteke ekintzaile batentzat"

Ekintzaileei laguntzeko programa bati esker, denbora batean doako bulego bat du Ibai Perezek Lanbide Heziketa zentroan

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Enpresa berri bat sortzea ez da erraza. Ekintzailea izateak arrisku ekonomikoak hartzea dakar, inbertsio bat eskatu ohi duelako. Horregatik, Zornotzako Lanbide Heziketa Ikastetxe Integratuak hainbat gela dohainik —tokia, argindarra, telefonoa...— erabiltzeko aukera eskaintzen die gazteei udalagaz duten hitzarmenaren bidez zein Jaurilaritzako Urrats Bat programari esker. Ibai Perez Sanchez (Iurreta, 2000) ikastetxeko ikasleak gela horietako bat darabil bere ikus-entzunezko egitasmoa garatzeko.

Ikastetxeko gela bat doako bulego bihurtzea lagungarri zaizu?

Bai. Sorkuntza digitalerako egitasmo bat garatu guran bazabiltza eta ekipamendua lortzen baduzu, lokalarena da geratzen zaizun gastu bakarra. Gaztea bazara eta buruan darabilzun ideia gauzatzeko baliabide nahikorik ez baduzu, denbora tarte batean gela bat dohainik erabiltzeko aukera izatea oso lagungarria da. Are gehiago, faktore erabakigarria izan daiteke erabakia hartzerakoan.

Gutxiago arriskatzea dakarrelako?

Jakina. Ekintzaile izateko, benetan hori gura izatea eta borondatea nahikoa direla esan ohi da, baina baliabideak beharrezkoak dira eta

jende askok ez du horiek lortzeko aukerarik. Beraz, horrelako ekimene asko laguntzen dute.

Laguntza eta guzti ere, abentura gosea izan behar da ekintzaile izateko? Ur nahikorik dagoen jakin barik, igerilekura salto egiteko ausardia?

Apur bat, bai. Denbora galtzen ibiltzearen sentsazioa izan dezakezu, eta, beharbada, dagoeneko martxan dagoen enpresa batera batuta etorkizun errazagoa izan dezakezula pasatzen zaizu burutik. Baina ekintzaile batek bere ametsa gauzatu gura du. Beraz, behar den ausardi dosia zeure buruarentzat lanean aritzeko ilusioak konpensatzen du.

Hoax izeneko ikus-entzunezko egitasmoa duzu esku artean. Zertan datza? Zer egiten duzue?

Lau arlo lantzen ditugu: bideogintza, argazkigintza, diseinu grafikoa eta webguneak diseinatzea. Hasi, 50 euroko argazki-kamera bat egaz hasi ginen. Geuretzat egindako lanak sare sozialetan banatzen genituen. Beharizan bat zegoela konturatu ginen. Herriko enpresa edo negozio txikiei, mundu digitalari eta sare sozialei buruzko jakintza sakonik ez zuten jabeek zerbitzu bat eskaini ahal genituela pentsatu genuen, eta modu horretara hasi ginen.



Ibai Perezek 18 urte ditu eta marketing ikasketak egiten dabil Zornotzako ikastetxean.

Hainbat anfibio espezieren ugalketa erraztuko duten putzu bi egin dituzte Mallabian auzolanari esker

Iturburu bateko emaria aprobetxatu dute putzuak egiteko, eta hainbat anfibio espeziek erabiltzea itxaroten dute

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Lurguia Fundazioak eta hainbat herritarrek anfibioentzako putzu bi egin dituzte auzolanean, Palazio izeneko jauregiaren inguruan. Iturburu bateko emaria aprobetxatu dute putzuak egiteko. Batak

"Anfibioen beharizan nagusietako bat ugalketarako gune aproposak dira"

bederatzi bat metro karratu ditu eta besteak hiru bat metro karratu.

"Anfibioen beharizan nagusietako bat ugalketarako gune aproposak dira. Anfibio batzuk errekan

bertan ugaltzen dira, baina beste hainbatek putzuak behar dituzte, eta gaur egun gutxi daude. Errekan ugaltzen direnek ere gune geldiak behar dituzte horretarako,

eta gure erreketan, normalean, ura azkar joaten da", adierazi du Jon Hidalgok, Lurguia Fundazioko kideak. Baso-igela, uhandre palmata eta txantxiku arrunt apoa

dira putzuak erabili ditzaketen anfibioetako batzuk. "Denboragaz beste hainbat anfibioek ere putzuak erabiltzea itxaroten dugu", azaldu du Hidalgok.



Anfibioentzako putzuak egiteko deitutako auzolanak 20 bat mallabitar batu zituen.

Plater-tiroketa saioa egingo dute, domeka honetan, Garaitorre jatetxearen inguruan

MAÑARIA • J.D.

Mugarra elkarteak hobi txiki roboterako plater-tiroketa saioa antolatu du domekarako Garaitorre jatetxe inguruan. Plater-tiroketa sozial eta irekirako izen-ematea tokian bertan egin

Parte-hartzaileen artean Benelli Belmonte markako eskopeta bat zotz egingo dute

daiteke, 10:00etatik 12:00etara. Lehenengoentzat diru sariak eta opariak izango dira. Gainera, Sarasketa armategiak oparitu dien Benelli Belmonte markako eskopeta bat zotz egingo dute parte-hartzaileen artean.

Orain aste bi botatako euriak kalteak eragin ditu Bitañorako bidean

IZURTZA • J.D.

Orain asteburu bi euri asko bota zuen eskualdean eta horrek bere eragina izan zuen Bitaño bidean. Auzora igotzeko aldapan, kanposantua baino apur bat gorago, errepide zati batek behera egin du. Ura asfalto azpira pasatu da eta azpialdea jan du. Gune horretan kontuz gidatzeko eskaera egin dute udalletik. Bitañorako errepide zatia konpontzeko gestioak egiten dabiltzala ere argitu dute udal ordezkariak.

28 umek parte hartuko dute astelehenean hasiko diren udalekueetan

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Astelehenean hasiko dira Garai-ko udalekuak, eta aurtengo edizioan 28 umek parte hartuko dute. 3 eta 12 urte bitartekoak izango dira, eta uztailearen 20ra arte gozatu ahalko dute udalak antolatutako zerbitzuak. Berbaro elkarteak dinamizatuko du.

Udalekuak goizez izango dira, irteera eguna eta despedidako kenduta. Horiek arratsalderako arte izango dira. Ludotekan, kultur etxean eta pilotalekuan garatuko dituzte ekintzak.



IBAN GORRITI

Hareek denporak!

2004-2005eko denboraldi historikoa kulturalarentzat

Denboraldi gogorraren ostean, ospakizunerako sasoa da Kulturalarentzat. Joan zen domekan mailaz igo eta gero, Durangoko Udalak harrera egin zien atzo udaletxean.

Baina hau ez da Kulturalak Bigarren B Mailan jokatzeko duen lehen aldia. 2005ean ere lortu zuten igoera. Egues bailaran (Nafarroa) partidua irabazita, Durangora bueltan ospakizunerako tartea izan zuten Kultura-

lean sasoi hartan jokatzeko zuten jokalariek, argazkian ikus daitekeen legez. Durangarren zorionerako, ezustean, luzapenean gol bi sartu zituen Zaragozak eta Escobedo taldea kanporatu zuen. Aldi berean, gol horiek Kulturalaren igoera bermatu zuten. Jokalari batzuei kosta egin zitzaion sinestea. Horrela, Rikardo Txintxurretaren mutilak Bigarren B Mailara itzuli ziren, 10 urteren ostean. J.G.

Sei hankako mahaia

Pilar Rios Ramos
PSE-EE



Ez erosi 'Otso-saldorik'

Aste honetan, justizia patriarkalaren azken zentzugabekeria ikusi dugu: 'Otso-saldoko kideak askatu ditu, 6.000 euroko fidantzapean. Zigortutako gaizkileak dira; epai ulertezin batekin baina zigorra jaso duten eta, gainera, taldeka egindako beste bortxaketa bat dela-eta ikertzen ari diren gaizkileak. Zentzugabekeria hauek ikusita, neuk sentitzen dut eraso egiten didatela epaile hauek, epai honek, gaizkileen askapenak. Emakume guztiei egindako eraso honek.

Era berean, oso larria da telebistako saio batek bortxatzaile horien auzokoei, lagunei eta senideei ahotsa ematea honelakoak esateko: 'Mutil onak dira', 'neskak esaten duena gezurra da', 'neska da erruduna, gauza baitzen 5 edo 25 sevillarrei nagusitzeko'. Horrek guztiak biktima eta gu geu estigmatizatzen gaitu, eraso egiten digu. Basapizti horiek izaki errugabeak direla esateak delitua izan beharko luke.

Mugimendu feministari ezker gizartea nola aldatzen ari den ikusteak zirrara eragiten dit, baina emakumeak "marichulo"-en plazerak asetzera bideratutako 'gauzak' izan ez gaitzen, ezinbestekoa da aldaketak egitea hiru botereetan -exekutiboan, legegilean eta judizialean- eta, jakina, laugarrenean.

Aldaketa handia, bilakaera behar dugu botere judizialean, Historiaurrean geratu baita ainguratuta, gizartearekin batere harremanik ez duela. Eta beste aldaketa bat behar dugu: hedabideen laguntza, iritzia sorrarazten baitute. Ez dute matxisten bozgorailua gehiago izan behar. Horrela eskatu dute emakumezko kazetariek, 'Otso-saldoari' ahotsa ematen dioten hedabideei bizkarra emateko. 'Ez erosi Otso-saldorik', sare sozialetatik dabilen goiburuen moduan.

Durangaldea asteen

Sabina Aizpururen lanak iragarriko ditu aurtengo Ferixa Nausikoak

Elorrio I Elorrioko Ferixa Nausikoen kartela aukeratzeko duen epaimahaia beste lan bat aukeratu du aurtengo jaiak iragartzeko. Elorrioko aurtengo jaiak Sabina Aizpuru Agirre elorriarraren 'Danontzako' lanak iragarriko ditu. Izan ere, hasiera batean irabazlea izan zen 'Barazki Festa'ri zegokion saria bertan behera uztea erabaki dute egileak, Elorrioko Udalak eta saria ematen duen ANBOTOK. Erabaki hori kartelaren "jatorri artistikoagatik" hartu dute hiru aldeek bat eginda.

Dendak Baik 100 eurora arteko 40 erosketa doan zozkatuko ditu uztailean

Durango I Dendak Baik kanpaina berria jarri du martxan. Uztailaren 1etik 31ra bitartean, Durango txartelagaz erosketa egiten duten herritarren artean 100 eurora arteko 40 erosketa doan zozkatuko dituztela jakitera eman dute. Bestalde, txartela ez dutenek eta zozketan parte hartu gura dutenek Dendak Bai elkartearen bulegoan eta Rural Kutxan eskuratu dezaketela esan dute.

Udan irakurtzeko liburuak itsu-itsuan aukeratzeko proposamena egin dute

Zornotza I Itsu-Itsuan izena jarri diote irakurketa programari. Liburuak aukeratzeko betiko modua aldatzea dute helburu, eta irailaren 15era arte iraungo du. Liburu bakoitzean fitxa bat sartu dute, irakurleek liburuagaz izandako esperientzia azaldu dezaten. Fitxa hori liburutegiko kutxa batean utziko dute, eta Zinemaldia 2018ko film baterako sarrera biren zozketan sartuko da.



Umeak "libre" jolasteko eta familiak harremantzeko, herriko landetan batu dira

Zornotza I Altzoan hazkuntza taldearen deialdiari erantzunez, herriko 20 bat familia Nafarroako landetan batu ziren joan zen astean. Umeei "uragaz esperimintatzeko" aukera eskaini gura zieten. "Belarra, harea, lurra, bainuontziak, ur poteak, sukaldeko tresnak eta bestelako ontziak. Osagai horiekin, joko libre bere horretan, helduen prententsiorik gabea", adierazi dute ohar batean.

Horregaz batera, "familientzako, elkar ezagutzeko eta hazkuntzarako sarea josteko aukera izan zen", gehitu dute.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, -IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zerbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenez sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidaltako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).


hitz
librudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzlibrudenda.com

#nobedadeak



HELDUENTZAT
ETSAIAK,
LAGUNAK,
EZKONGALAK,
MAITALEAK,
SENAR-EMAZTEAK
Alice Munro
(2018)



UME ETA
GAZTEENTZAT
ZEIN USAIN
DUTE
OROITZAPENEK?
Maddi Etxeberria
(2018)



MUSIKA
BOR BOR
Elcano
Browning Cream
(2018)

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
Chimeneas
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua Industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727



Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

A-METZ DEKORAZIOA

-%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.
-%20 ideien proiektuan.

BETIXU JATETXEA

-%10 asteburuko otorduetan eta kartan, bariku eta zapatu gauetan.

COLOR PLUS

-%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
-%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.

EPOCA SUKALDEAK

-%10 sukalde nahiz etxeko altzarrietan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

-%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

GIMNASIO ZIRKIN

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- Bazkide direnei 10 saioko solarium bonua doan.

HITZ LIBURU-DENDA

-%10 euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

-%15 sarreran.

ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

-%5 lehenengo erosketan.
-%10 erosten den bigarren arropan.

IURRETA KOPISTEGIA

-% 10 eskola eta bulego materialean.
-%5 musika, operari eta liburuetan.

KATXARRO JATETXEA

-%10 asteburuetako menuetan.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

-%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

-% 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
-%10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

-%5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
-%15eko deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.

OPEN KLUB

-%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- Bosgarren gosaria doan.
- Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.

UNDARRI BIKE

-%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
-%10 bizikletako osagarrietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

-%5 liburuetan.
-% 10 papergintzan.

UR URDAIBAI

-%25 Anbotoren Lagunarentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarraren jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.



UR URDAIBAI

%25eko deskontua Anbotoren Lagunarentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarraren jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.



HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

%15eko deskontua sarreran.



Anbotorenlagunak
Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

jaiak!

Zaldibar
uztaila 2018



Zaldibarko udalak
Jai zoriontsuak opa deutsuez
zaldibartar guztioi



Zaldibar
Elizateko
Udala

Zaldibarko jaiak 2018**EITZAGAKO AUZOA | SAN PEDRO JAIK****Ekainak 29, barikua****14:00** Nagusiendako bazkaria Eitzagako Auzo Etxean.**18:00** Haurrentzako marrazki eta idazlan lehiaketa.**19:00** Txokolatada herrikoia parkean.**19:15** Txopoaren altxaera. Jarraian pintxo potea.**Ekainak 30, zapatua****12:30** Paella eta tortilla lehiaketak parkean.**14:00** Plateren aurkezpena.**14:15** Lehiaketaren erabakia eta sari banaketa. Bukaeran herri bazkaria.**18:00** Bolo jaurtierak.**19:00** Bolo txapelketa.**20:00** Saiheski errea.**21:30** Jai afaria.**Uztailak 1, domeka****13:00** San Pedro ermitan ardoa eta gailetak banatuko dira.**13:45** Parkean, Ermuko Txindurri Dantza Taldearen ekitaldia.**14:00** Txirikil jokoa.**18:00** Lasto probak. Parte-hartzaileak:

1. Juan Luis Irazola - Mallabia,
2. Koldo Larrabetzu - Larrabetzu
3. Jose Antonio Irureta "Xarpa" - Aizarnazabal
4. Juanjo Uranga - Eibar.

20:00 Errifaren zozketa .**21:00** Jai bukaera.**ZALDIBARKO JAIK | SAN PEDRO JAIK****Ekainak 29 - 30 eta Uztailak 1**

XXVIII. areto-futbol maratona kiroldegian.

Ekainak 29 barikua**18:00** Funbox, bizikleta akrobazien erakustaldia. Olazarren.**Ekainak 30 zapatua****16:30** Durangaldeko pilota txapelketako finalak. Olazar pilotalekuan.**Uztailak 1 domeka****08:30-14:30** XXV. argazki rallya.**Uztailak 5 eguena****18:30** Donien Atxaren igoera. Ondoren jaietako kartelen lehiaketako sari banaketa.**19:00** Aureskua San Martin Nagusien Elkartearen omenez; jarraian jaien hasiera iragartzeko txapligua jaurtiko dute San Martin Nagusien Elkarteko kideek. Ondoren, kalejira Koral elkarteko trikitilariekin eta buruhandiek**19:30** Herri Batukada Txosnagunean.**20:00** Odoloste jana Bekoetxe kalean.**23:00** ZIRIBULIO SOUND DJa txosnagunean.**Uztailak 6 barikua****08:30 eta 09:30** Mendi irteera familiarra udaletxeko plazan hasita.**12:30** Herri kirol erakustaldia udaletxeko plazan, aizkolariak eta harrijasotzaileak.**17:00-20:00** Herri kirolak umeentzat udaletxeko plazan.**17:30-20:30** Eskularen erakusketa Jubilatuen etxepean.**18:00** Pilota partidak Olazar pilotalekuan.**19:00** TTEK elektrotxaranga.**22:30** Kontzertua txosnagunean **STORM, BULTZ** eta **KOBAN**.**23:00** Dantzaldia **DJ JOSEMARI**ekin Euskal Herria etorbidean.**03:00** Kaltzontzillo, kulero eta tanga martxa txosnetan.**Uztailak 7 zapatua****10:00-13:00** Arku jolasak Olazarren.**12:00** Tortilla txapelketa eskolako aterpean.**14:30** Gazte bazkaria txosnagunean.**16:00** 3x3 saskibalo txapelketa kiroldegian.**17:00** Olinpiadak txosnagunean.**17:30-20:30** Eskularen erakusketa Jubilatuen etxepean.**18:00** Apar festa udaletxeko plazan.**18:30 SAKATU** Elektrotxaranga txosnetan.**19:00** Afari-merienda herrikoia Olea kalean.**24:00** Erromeria **URRATS** taldearekin txosnagunean.**Uztailak 8 domeka****10:30** Herrialde mailako eskola arteko txirrindulari proba. Irteera Autonomia eta Euskal Herria kaleen artean.**11:00** Trikitilariekin kalejira.**11:00-13:00 eta 16:00-19:00** Umeen jolas parkea eskolako patioan.**12:00** Euskal dantzak udaletxeko plazan.**17:30-20:30** Eskularen erakusketa Jubilatuen etxepean.**18:00** Bertso saio musikatua Zaldua plazan.**20:00** Antzerkia Zaldua plazan: Barsanti Teatroa taldearen **Kale Gorrian** ikuskizuna.**22:00** Jaietako argazki emanaldia udaletxeko plazan.**23:00** Su artifizialak Gaztetxe ondoan.**Uztailak 14 zapatua****07:00** XLI. Zaldibarko Mendi Martxa Zaldua plazan hasita. Bukaera udaletxeko plazan.**Uztailak 19 eguena****20:00** XXXV. Argazki Rallyaren emanaldia eta sari banaketa liburutegi zaharrear.**BARATZA** FRUITADENDA URDAITEGIASta. Isabel, 2 behea
Tel.: 946 225 063
Zaldibar, Bizkaia


07:00etatik aurrera zabalik
Euskal Herria, 18
946 550 481 - Zaldibar
Paularen Zokoa

IMENDIA

- Bideo alokairua
- Fotokopiak
- Prentsa salmenta
- Gozokiak

Tel./Faxa: 946 827 413
Zalduasolo E.7 · ZALDIBAR**Sorgin**
TABERNAIzan aske,
izan sorgin.1955an sortua
GALLASTEGI
harategiak**ZALDIBAR**
Zalduasolo, 8. ☎ 946 827 038
DURANGO
Antso Estegiz. Zumardia, 1
☎ 946 812 247
gallastegiharategiak.eus**Azkonizaga****Edari banaketa**GARAGARDOAK · ARDOAK · LIKOREAK
ESNEA · URA · FRESKAGARRIAKLejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com



Gorka Madrazo, kartelagaz.

Oroitzapenetako elementuak oinarrian

Gorka Madrazo zaldibartarrak eginiko proposamenak irabazi du jaiak iragartzeko kartel lehiaketa

EGITARAUA • ARITZ MALDONADO

Umetatik dituen oroitzapenekin egin du lehiaketa-rako proposamena Gorka Madrazo zaldibartarrak. "Jaietan urtero errepikatu ohi diren elementuak gogoratzen nituen batez ere: odolostea, Donien Atxa, udaletxeko plaza bera... eta horiek agertzea gura nuen". Umetan lagun artean jaietarako kamisetak diseinatzen zituztenetik dator kio marrazteko zaletasuna. Elementuak eskuz margotu ondoren, digitalera pasatu eta formatu horretan azken ukituak eman dizkio Madrazok. "Kolorea, testura eta horrelakoekin jolasean ibili naiz ordenagailuagaz".

Zaldibarko lehiaketa irabazita, Apatako jaietako kartela egiteko enkargua jaso du Madrazok. Durangokora ere aurkeztokotan da.

Zaletasuna bultzatuz

Zaldibarkoa Madrazok parte hartu duen lehenbiziko lehiaketa izan da. Halere, hau irabazteari esker, Apatako jaietako kartela egiteko eskatu diote, adibidez. "Hemendik aurrera gehiagotara aurkeztuko naiz. Durangoko lehiaketara aurkezteko asmoa dut".

Gazte Eguna ospatuko dute txosnagunean, lehenbizikoz

lazko jaietan emakumeen kontrako erasoen aurkako protokoloa jarri zuten martxan, eta aurten brigada feministak antolatuko dituzte jaiak irauten duen bitartean

EGITARAUA • ARITZ MALDONADO

Uztailaren 5eko txupinazoagaz abiatuko dira Zaldibarko jaiak. Aurten, kolore grisa nagusituko da bertan, izan ere, gris koloreko 250 bat kamiseta saldu dituzte jaiak hasi aurretik. Txupinazoaren ostean, olatu grisak herri batukadagaz hartuko ditu herriko kaleak. Besteak beste, askotariko musika eskaintza egongo da txosnagunean zein herriko beste txokoetan. Txosnagunean Bultz eta Koban talde ezagunek eskainiko dute kontzertua; dantzarako aukera ere izango dute berriztarrek, Urrats eta DJ Josemariren eskutik.

Herria astintzen

Txosnaguneak ere, urtero legez, herritar guzti-tzako moduko egitaraua eskainiko du. Aurten, lehenbizikoz, Gazte Eguna ospatuko dute, uztailaren 7an. Hiruzpalau urtez itxita egon eta gero, aurten gaztetxea berriro zabalik egongo da jaietan.

Uztailaren 6an musika zaleen nahia asetuko dute Bultz eta Stormen doinu rockeroek eta Koban taldearen eskaintza dantzarriak



Bultz eskualdeko taldea arituko da Zaldibarren.

MUELLES ZALDUA S.L.

MALGUEN FABRIKAZIOA OROKORREAN

Tel.: 946 827 801 · Faxe.: 946 827 654
San Andres etorbidea, 1
48250 ZALDIBAR
a@muelleszaldua.com
www.muelleszaldua.com

SIKULAN Cutting Tool Technologies

WWW.SIKULAN.COM

KASU BAKOITZERAKO SOLUZIO EGOKIENA

C/ Zubiaurre 5 · E-48250 Zaldibar · Bizkaia
Tel. 94 682 74 78 · sikulan@sikulan.com

GAI

castet

libre eta zabalik



San Martin jubilatuen elkartearen kideak.

"Herriko nagusiokin gogoratu dira pregoia botatzeko, eta, gainera, hitza hartuko dugu"

Jaien hasierako pregoia urte guztian zehar San Martin jubilatuen elkarteak egiten duen lana ezagutzera emateko baliatuko dute

San Martin jubilatuen elkartearen kideak emango diete hasiera aurtengo Zaldibarko jaiak, uztailearen 5ean

TXUPINAZOA • MAIALEN ZUZUBISKAR

Uztailearen 5ean hasiko dira Zaldibarko jaiak, eta, aurretik, San Martin jubilatuen elkartearen kideak izango dira txupinazoa botatzeko arduradunak. Ani Villanueva, Transi Moralejo, Dora Fuentes, Feli Lozano eta Mari Luz Palacios izango dira udaletxe bakoitzaren kideak. Boskoteak aitortu duenez, jaiak hasiera emateko ilusio "ikaragarria" egiten die eta "oso emozionatuta" daude. "Herriko nagusiokin gogoratu dira pregoia botatzeko, eta, gainera, hitza hartuko dugu", adierazi dute San Martineko kideak.

Bostak igoko diren arren, jubilatuen etxeko 50 bat lagun bakoitzaren babesa izango dute uztailearen 5ean. "Balkoira geu igoko gara, baina gainontzeko kide guztiak ere gugaz egongo dira txupinazo egunean", jarraitu dute. Gainera, agian, elkartearen kide nagusienari txupinazoa jaurtitzeko proposatuko diotela jakitera eman dute.

Jaien hasiera elkartearen lana ezagutzera emateko baliatuko dute San Martin elkartearen kideak. Jubilatuen elkarteak urte asko daramatza Zaldibarko lanean, herriko nagusiei topalekua eskainiz eta hauen artean ekintzak bultzatuz. "Uste dugu urte

guztian zehar egiten dugun lana aintzat hartu gura izan dutela honegatik", esan dute pregoilariek.

Horrez gain, herritarrengana babes eske ere joango direla jakinarazi dute pregoia botatzeko kideak. "Pentsio duinak lortzeko borrokan gabiltza eta zaldibarkoari ahal duten neurrian laguntzeko eskatuko diegu", adierazi dute elkartearen kideak. Astelehenero hamarka lagun batzen dira udaletxe aurrean pentsio duinak eskatzeko, eta herriko gazteei ere euren mobilizazioekin bat egiteko dei egin diete. "Herritar guztion beharra daukagu. Gainera, zuen etorkizuna ere jokoan dago", jarraitu dute.

KAROBI

Karobi tabernak jai zoriontsuak opa dizkizue!

Zalduasolo Plaza, 2
ZALDIBAR
Tel.: 946 826 629

kizkitza
taberna

**ETXEKO BEREZITASUNAK
PINTXOAK - OGITARTEKOAK**

Tel.: 946 033 310
Euskal Herria etorbidea, 30
48250 ZALDIBAR - Bizkaia

capelo
Birgaikuntzak eta Berrikuntzak

SATE FATXADAK
Kanpoko isolamendu termikoaren sistema
ESTALKIAK
MERKATARITZAKO LOKALAK
ETXEBIZITZAK
ATARIAK
IGOGAILUAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Zeharkalea, 10 behe
ERMUA (Bizkaia)
943 172 767 / 629 401 713 / 629 401 712

**ELECTRICIDAD
EGUZKI, S.L.**
ELEKTRIZITATEA

Arzubia, 10 Apdo.115
48220 MATIENA - ABADIÑO
eguzki@elect-eguzki.es
689 709 602 Jabi
946 815 201 f: 946 818 658



Jazzeruena

KONTZERTUA
DURANGO :: Uztailak 4

Jazz kontzertua Ander Garciaren eskutik, Platerueneko terrazan

Euskal musika tradizionala eta herrikoia oinarri hartuta, jazz melodiak konposatzen ditu Ander Garciak. Tradizioaren eta abangardiaren arteko zubiak bilatu eta eraiki gura ditu horrela. Hirukote formatua izango du kontzertuak eta Platerueneko terrazan izango da, uztailaren 4an, 21:00etan.

Ekainaren 29an

BERRIZ jaiak
Margo lehiaketa, 11:00etan, udaletxeko plazan; **meza nagusia, eta ostein, dantzari dantza**, 12:00etan; **'Chef Nature' antzezlana**, 18:00etan, eskolako patioan; **XX. Frontenis Txapelketako finalak**, 19:30ean, Olakueta frontoian; **Dantzari dantza**, 20:00etan; **80ko eta 90eko hamarkadetako Rave Retro jaialdia**, 21:00etan, Elizondo plazan; **Mocker's Nudozurdo, Vulk eta Gyoza taldeen kontzertua txosnagunean**, 22:00etan, txosnagunean.

ATXONDO Apatako jaiak
Stanba Banda umeentzako antzerki musikatua, 12:00etan; **Tortilla eta bakailao txapelketak**, 18:00etan; **afari herrikoia**, 21:00etan.

ABADIÑO musika
King Kong Blues eta The Cheap and Nasty Boys taldeen kontzertua, 19:30ean, gaztetxean.

IURRETA musika
Amatzako 4. trikitixa jaialdia. Maddi Alberdi eta Olatz Alberdi, Epelde eta Lutxurdio, Asier Gozategi eta Julen Alonso, Andoni eta Iñaki, Xabier Etxaniz eta Ainara Saizar, Marina Ereña eta Julen Leturiondo bikoteak lehiatuko dira, 20:00etan.

ELORRIO jaiak
'Udaro' jaialdia. Zozketa eta pintxo pote berezia, 18:30ean; **afari kontzertua Lazybone Rambloners eta Sweet Margot taldeekin**, 20:00etan, Xelai tabernan.

Ekainaren 30ean

ATXONDO Apatako jaiak
Umeentzako puzgarriak, 10:30ean, plazan; **paella txapelketa eta herri bazkaria**, 14:30ean; **mus txapelketa herriko tabernetan, eta bitartean Kittu zornotzako txarangagaz kalejira**, 17:00etan; **State Alerta eta Joxpa taldeen kontzertua**, 21:30ean.

BERRIZ jaiak
Potxin eta Patxin pailazoen 'Hondartza' ikuskizuna, 12:00etan, eskolako patio berrian; **paella lehiaketa**, 14:00etan, udaletxeko lorategian; **gazte bazkaria**, 15:00etan, txosnagunean; **umeentzako musika tailerra Umerrik antolatuta**, 17:00etan; **mus, tute eta briska lehiaketak**, 17:30ean; **Luhartzen erromeria**, 22:00etan, Elizondo plazan; **Kulto Kultibo eta DJ Ainhoa**, 23:00etan, txosnagunean.

DURANGO zinema
'Uda Giro. Kale zinea' egitasmoaren baitan, 'Handia' pelikularen emanaldia, 22:30ean, Benita Uribarrena parkean.

Uztailaren 1ean

BERRIZ jaiak
Tribiala, 12:00etan, udaletxeko lorategian; **kultura arteko topaketak**, 12:30ean, umeentzako parkea, 12:30ean, kiroldegian; **munduko plateren dastaketa**, 14:00etan; **dantza, bilaka 'Lehiotik'**, 18:15ean; **bertsoak**, 19:00etan, txosnagunean; **euskal diskofesta**, 19:00etan, eskolako patioan; **bits jaia**, 20:00etan, **La Pulga eta; Sonakay**, 21:00etan, Elizondo plazan.

ATXONDO Apatako jaiak
Umeentzako 'Buala' antzerkia, 16:00etan; **igel txapelketa**, 16:30ean, Itziar tabernan; **pilota partidua: Titin III-Beroiz / Xala-Jaio**, 18:30ean; **Rantxerak Txapito Guzman eta Ibarra langostinuek taldeagaz; ostein, txopoa bota eta brindisa**, 21:00etan.

ABADIÑO emanaldia
'Himalaya eta Nepaletik motorrean' argazki emanaldia Arkaitz Munitxaren eskutik, 19:00etan, gaztetxean.

Uztailaren 2an

BERRIZ jaiak
Meza nagusia eta Dantzari dantza, 12:00etan; **jubilatuentzat bazkaria; bazkalostean musika**, 14:00etan; **'Romance Latino' boleroak**, 18:00etan; **bizikleta martxa herrikoia**, 19:15ean; **tortilla lehiaketa**, 21:00etan; **tximeleta dantza taldeagaz erromeria**, 21:30ean, Elizondo plazan; **su artifizialak**, 23:00etan.

DURANGO musika
'Nahi duzu murgildu munduan aurkitutako itsasontzi zaharreneko hondarretan?' urpeko arkeologia tailerra, 12:00etan eta 16:00etan, Tabirako igerilekuan.

Uztailaren 4an

DURANGO musika
'Uda Giro. Jazzeruena' egitasmoaren baitan, Ander Garciaren kontzertua, 21:00etan, Plateruenean.

Uztailaren 5ean

DURANGO musika
'Eguenero' egitasmoaren baitan, Inun zornotzarraren kontzertua, 21:00etan, Intxaurre elkartearen.

Zine- ma

:: Durango ZUGAZA

· **Sicario.**
El Día Del Soldado
barikua 29: 19:30/22:00
zapatua 30: 17:30/20:00/22:30
domeka 1: 18:00/20:30
astelehena 2: 18:30/21:00
martitzena 3: 20:00
eguztana 4: 20:00
· **Oh! Mammy Blue**
barikua 29: 22:00
zapatua 30: 20:00/22:30
domeka 1: 19:00/21:15
astelehena 2: 21:00
martitzena 3: 20:00
eguztana 4: 20:00
· **En La Playa de Chesil**
barikua 29: 19:30/22:00
zapatua 30: 20:00/22:30
domeka 1: 19:00/21:15
astelehena 2: 18:30/21:00
martitzena 3: 20:00
eguztana 4: 20:00
· **Luis eta Estralurtarrak**
barikua 29: 19:30 (gaztelerez)
zapatua 30: 18:00
domeka 1: 17:00
astelehena 2: 18:30 (gaztelerez)
· **Superagente Canino**
zapatua 30: 18:00
domeka 1: 17:00

:: Zornotza ARETOA

· **El Mundo es Suyo**
barikua 29: 20:15
zapatua 30: 19:30/22:00
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:15

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

“Irudiaren askotariko diskurtsoak kontuan hartuz gero, kontatzeko estrategia gehiago edukiko ditu kontalariak”

Denon Artean argitaletxeagaz 'Non Dago Txirlo?' obra kaleratu du Miriam Peña durangarrak; Txirlo boloaren istorioa kontatzen du istorioak



Miriam Peña Zabala
Arte Ederretan
lizentziatua eta irakaslea
Hezkuntza Fakultatean

Durango | 1983

2010 inguruan ezagutu nuen Eider, eta, besteak beste, UEUko hainbat ikastarotan egon gara elkarregaz harrezkero.

Unai Pascual editoreagaz berbetan, kontatu zidan ilustratzailearen izena idatzi ere ez zela egiten lehen. Literaturaren egoera horrelakoa izan da orain hamarkada bi ingurura arte. Orain, ostera, ilustratzaile horiek bere lekua dute. Are gehiago, lan batzuetan irudiek hitzek baino pisu gehiago dute orain. Gure kasuan ere, hitzei garrantzia kendu barik, irudiak eramaten zaitu leku batetik bestera. Biraketa bat egon da, nire ustez: ilustratzailea dagokion lekuan jarri da, eta beste aldetik ere umiltasun pixka bat agertu da.

Aldatzen ari dira istorioak kontatzeko moduak?

Alde batetik, ematen ari den digitalizazio prozesuan ipuinek bizirik irauteko egin dela horrela esango nuke. Album ilustratuek, manipulazio hori behar dutenez, euskarrian jarri da arreta, eta indarra hartu dute horrela. 'Non Dago Txirlo?'-ren kasuan, adibidez, duen forma du bolo baten forma izan behar zuelako. Formatuak ere irudi gisa funtzionatzen du, eta, beraz, kontalari edo irakurleak irudiaren askotariko diskurtsoak kontuan hartzen badiu, estrategia gehiago edukiko ditu zerbait kontatzeko. Irakurlearen kasuan, kontu bakarrean zentratuz gero, beste informazio batzuk ez dira kontuan hartzen. Lengoiak oso aberatsak dira. Irakurtzea zer da, testua deskodifikatzea soilik? Ala irudia eta gorputza deskodifikatzea ere bai? Logikoa den bezala, zenbat eta kode gehiago gureganatu, kontakizuna gero eta aberatsagoa izango da. Paradoxikoki, hori ez da lantzen, baina.

Badaukazu beste proiekturik esku artean?

Lehenik eta behin, tesia amaitu behar dut. Irenez eta Eneritzez liburuaren aurkezpenak lantzen ari naiz orain. Gure asmoa ikusleak pasiboak ez izatea da. Eta gero, atsedean hartzeko denbora hartzea ere gura dut.

Peña, liburua eskuetan duela.

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Miriam Peña durangarrak 'Non Dago Txirlo?' album ilustratua kaleratu du Eneritz Sanchezegaz, Irene Fernandezegaz eta Eider Eibarregaz batera.

Nola sortu zen proiektua?

Hezkuntza Fakultatean egiten dut lan. 2015. urtean ipuinei buruzko ikasgai bat eduki nuen; ipuinak euren edukiaz haratago aztertzea zen ikasgaiaren funtsa. Sinesten dut formatuak, tipografiak, euskarriak eta horrelakoek balio erantsia ematen diotela irakurketari. Istorioa eta elementu horiek guztiak nola uztartzen diren ulertu egin behar da. Gure planteamenduan ere igartzen da aldaketa hau. Kasu honetan, ez da izan idazle batek ilustratzaile bati ematen dion lana, baizik eta irudien eta testuen bitartez erakitzen joan den prozesu bat. Hain

zuzen ere, ikasgaiaren helburu nagusia irakasle izango direnei hori transmititzea zela esango nuke. Ikasturte amaieran, ikasturtean

“**Irudi eta testuekin eraikitzen joan den prozesua izan da, ez idazleak ilustratzaileari eskatutako lana**”

zehar landutako kontzeptuekin ipuin bat egin behar zuten ikasleek. Orduan, Eneritz Sanchezek eta Irene Fernandezek bolo baten istorio labur bat planteatu zuten; ipuin jolas bat zen, umeak jolasteko planteatu zutena. Apur bat gehiago

landuz gero, argitaratzeko moduko zerbait izan zitekeela pentsatu nuen. Durangoko Azokan editore bila hasi nintzen, Landako Gunean bertan. Denon Artean argitaletxea asko baloratzen dut, Munstro Arrosa eta Elena Odriozolaren liburuak bertan kaleratu dituzte, mimo handiz egiten dute lan, eta uste nuen agian ulertuko nindutela. Editorea azokan bertan zegoen, eta horrek ere asko esan gura du, nire ustez. Berbaz azaldu nion istorioa, eta emailaz bidaltzeko eskatu zidan. Ideia asko gustatu zitzaion, eta hobeak izateko zitekeela esan zidan. Eta lanean hasi ginen: hamar orriko istoriatxo bat zen hasieran, eta 36 orriko bat izatera igaro zen. Koloreak sartu genituen.

Eider Eibar azken txanpan sartu zen, eta, kasu honetan, berarentzat ere erronka berezia zen, izan ere,

normalean ilustrazioak egiteko eskatzen dioten arren, oraingoan eginda nituen zirriborroak. Hala ere, ekarpen handia egin dio 'Non Dago Txirlo?'-ri.

Eta istorioan, zer gertatzen da?

Prozesu honen hasieran, konturatu ginen orokorrean gauza batzuk ez direla ulertzen bere baitan, fede kontu bategatik sinesten ditugula. Ipuina amaitzen denean, gertatu den ala ez planteatzen da, ez gurelako gura zerbait oso estereotipatua edo literala izatea. Hori, kontzeptualki. Formalki, baina, kolorearen garapenari eman gura izan diogu garrantzia, adibidez. Hasieran, azala zuri-beltzekoa izatea gura genuen, espoilerrik ez egoteko. Irakurketan, trantsizio guztiz koherentea izatea gura genuen.

Ez da lehenbiziko elkarlana izan Eider Eibarregaz. Elkarlan prozesuak boladan daude?

Musikaire jaialdiak munduko musika eta antzerkien topaleku bilakatuko du Elorrio uztaileko asteburuetan

The Souljazz Orchestra, Morgan eta Travellin´Brothers musikariek eskainiko dute kontzertua, besteak beste; antzerki eta dantza ikuskizunak ere egongo dira, urtero legez; plazan eta Lariz eta Tola jauregietan izango dira emanaldiak

MUSIKAIRE • A.M.

Diziplina askotariko ikuskizunak egongo dira Elorrioren uztaileko asteburuetan egin ohi duten jaialdian. Uztailearen 6an hasiko da aurtengo Musikaire, Juan Ortiz Tokyo Quarteten kontzertuagaz. Lariz jauregian izango da emanaldi hau. Biharamunean, Morgan talde madrildarrak joko du bertan. Domekan, osteran, Borja Ytuquepintasen ikuskizuna izango da protagonista. Hareagaz artea egiten du artista honek, eta bere eskuekin poesiaz beteriko istorioak sortzen ditu; txotxongiloekin eta zuzeneko musikagaz uztartzen ditu hareazko irudiak, ikuskizun anitza eskainiz. Bigarren eta hirugarren asteburuetan, Elorrioko plazan izango dira emanaldirik gehienak. Camtu Band, Sinfonity eta dantza garaikide ikuskizunak egongo dira 13tik 15era. Hurrengo asteburuko emanaldiekin The Primitals tribuak musikal dibertigarria eskainiko du, *a capela*. Uztailearen 21ean The Souljazz Orkestrak kontzertua

eskainiko du; lo-fi eta boogie eta elektro-disko doinuak jorratzen ditu talde kanadiarrak.

Doinu afrikarrak

Zikloa ixteko, munduko musikak

izango dira protagonista osteran ere. Travellin´Brothers taldeak kontzertua eskainiko du Tolan, uztailearen 27an. 28an, berriz, Tosta Bandak joko du; besteak beste, Eskozia, Galizia eta Irlandako kideak ditu talde

honek. Aurtengo edizioa Elorrioko Enekora taldeak itxiko du, Tola jauregian eskainiko duen kontzertuagaz. Taldearen kontzertuetan munduko hainbat txokotara egiten dute jauzi musikaren bidez.



The Souljazz Orchestra Kanadatik dator.

Frantziara joan da Haizetara txapelketako talderik onenaren saria

Pastor of Muppets talde frantziarrak eraman du 10.000 euroko saria



Pastor of Muppets saria jasotzen.

MUSIKA • A.M.

Milaka lagun joan dira asteburuan Zornotzara Haizetara lehiaketaren hamahirugarren edizioaz gozatzeko. Hiru egunean zehar, nazioarteko bederatzita talderen emanaldiak egon dira Zornotzako kaleetan; eguraldi onari esker, sekulako giroa bizi izan da herriko kaleetan. Pastors of Muppets talde frantziarrak jaso du lehenengo saria, 10.000 eurokoa. Ikusleen saria, 4.000 eurokoa, Traperistak taldeak jaso du, eta musikaririk onenaren saria, 1.000 eurokoa, Sergi Torrentsek irabazi du. Accesit-a New York Brass Bandek irabazi du. Lehiaketatik kanpo Accoustel Gang eta Kittu zornotzarrak aritu ziren kaleak girotzen.

Geure Durangaldea

Libe Mimenza Castillo
Kazetaria



Passato il mare

Aditzen dituzu txoriak? Egunotan, enarak ditugu bizi-lagun. Afrikatik datoz, bai. Baina ez dira uda amaitzean itzuliko. Geratzeko datoz.

Akuario bihurtu dugu itsasoa eta bertan preso hartu gizatasa. Ontziek, egun berotan, gizonak arrantzatzen dituzte, emakumeak, umeak. Egun hotzetan hilotzak dakartzate itsasertzera. Oraindik bizirik bada, ukatuko diegu lehorreratzea. Mugak zarratzea onena. Ez daitezela sar. Eta autobus geltokitan noraezean askatzen dituztenean eraiki dezagun zoo bat. Geure egunerokoen gotorlekuetan gatibu sentitzen garen animalia zaurgarriak gara migrazioaren ispilura so egiteko.

Kaiolatan sartzen ditugu atxilotu ahala, eta bihozgabe ebazten dugu beraien bihar-ko argia edo iluna, asiloa edo deportazioa. *Mare Nostrum* deritzana da boteredunek jabegoan nahi ez duten bakarra —itsasoa sikatuko lukete kapazak balira—. Goi bileren esku arma eta harresi negozioa. Guri isiltasuna baino ezin zaigu egotzi.

Egoaren hegoa ea nor-norinoiz ebaki zain gaude partida anker honi begira.

Mundu zail bat da txoriena, zioen Mikel Laboak, eta neuri bere *Agonia* baino ez datorkit gogora. Zenbat amets akabatu ditu gaurdaino mundu aldrebes honek? Zenbat bizi kondenatu urertza irudikatuta ortzimugan itoztera? Mediterraneo inguruan ugari diren kardantxiloek ere ez dute arranguraz bizi nahi, askatasun intziria da aditzen dena, hiltzerian denaren azken garrasia da enarek dakartena: *Ma non vivere di lamento, come un cardellino accecato.*

<p>San Agustin Kultur Gunea Plateruena Kafe Antzokia</p> <p><i>uda giro</i> 2018</p> <p>JAZZERUENA • ZINEMA • ANTZERKIA • DANTZA MUSICA • CINE • TEATRO • DANZA</p>	<p>Benita Uribarrena Parkea</p> <p>ZINEMA</p> <p><i>HANDIA</i> Aitor Arregi Jon Garaño</p> <p>Ekainak 30 • 22:30ean</p> <p>Zinema</p>	<p>Plateruena</p> <p>JAZZERUENA</p> <p><i>ANDER GARCIA</i></p> <p>Uztailak 4 • 21:00etan</p> <p>Musika</p>	<p>Aurora Abasolo Parkea</p> <p><i>MARKELIÑE</i> Chef Nature</p> <p>Uztailak 6 • 19:00etan</p> <p>Antzerkia</p>	<p>San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA</p> <p>SAN AGUSTIN Kultur Gunea Sanagustinalde, 12 DURANGO Tel.: 946 030 021 sanagustin@durango.eus</p>	<p>PLATERUENA</p> <p>PLATERUENA Kafe Antzokia Landako Hiribidea, 4A DURANGO Tel.: 946 030 300 jatekx@a@plateruena.net</p>
---	---	--	---	--	---

“Ezin daiteke berba bategaz adierazi partidu amaierako sentsazioa; poztasuna, ilusioa... sentimendu asko batera”

Mikel Pradera (Zaldibar, 1995) eta Andoni Errasti (Eibar, 1994) protagonista izan ziren Kulturalak Bigarren B Mailarako igoera lortu zuen partiduan. Aurrelari zaldibartarrak partiduko lehenengo gola sartu zuen lehen zatian eta atezain eibartarrak berak egindako penaltia geratu zuen partiduko azken txanpan



Ezkerrean, Pradera eta Errasti. Goian, Pradera buruz partiduko lehen gola sartzen. Behean, Errasti penaltia gelditzen. Luis Iturrioz

≠FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Soin Hezkuntzako Euskal Erakundeak ikasten dabilta jokalar biak eta joan zen domekan, partidu egunean, azterketak zituzten. Data aldatzea erabaki zuten, azterketarik inportanteena Tabiran zutelako. "Ehunetik ehuneko konpromisoa izan du talde osoak", adierazi du Praderak. Durangoko Kulturalak 2-0 irabazi zion San Fernandori eta kluba sortu zeneko mendeurrena Bigarren B Mailan jokatu du.

Partidu amaieran sentitu zenutena berbaz adierazteko kapaz bazarete?

Andoni Errasti: Horrelako zerbait bizi dudan lehen aldia da. Ezin daiteke berba bategaz adierazi partidu amaierako sentimendua. Poztasuna, ilusioa... sentimendu asko batera.

Merezi dugun lorpena izan dela uste dut. **Mikel Pradera:** Ilusioa eta poza. Denboraldi luzearen ostean, orain gozatzea dagokigu. **Mikel, zurea izan da partiduko lehenengo gola. Hori hor geratuko da betiko.**

M.K.: Egia esanda, ez zen izan nire partidurik onena, belauna ere nahiko txarto nuelako [astelehen honetan ebakuntza egin diote meniskoan]. Gola inportantea izan zen, taldeari lasaitasun puntu bat emateko balio izan zuelako. Alde horretatik, oso pozik nago.

Andoni, partiduko azken txanpan zeu izan zinen protagonista. Penalti bat egin eta jaurtiketa geratu egin zenuen.

A.E.: Akatsa penaltiaren aurretik egon zen. Baloia urruntzen saiatu eta labur geratu zitzaidan. Aurkariak baloia paparragaz kon-

trolatu eta oztopo egin nion eskua jarrita. Penaltia zen. Ondoren, argi nuen jokaldia burutik kendu eta jaurtiketan kontzentratu behar nuela.

Jaurtiketa ona izan zen, behetik eta gogor.

A.E.: Egia esanda, euren penalti jaurtiketak nahiko aztertuta izan ditugu. Bagenekien normalean behera botatzen zituela. Hala ere, ez zuen abiada betiko moduan hartu eta azken unera arte itxarotea erabaki nuen.

Zelakoa izan zen aurreko astea? Jendeak sarritan geratu zaituzte kaletik?

M.P.: Kostatu zaigu, bai, apur bat eskapatzea. Baina partiduak lehentasun osoa izan zuen guretzat. Andoni eta biok Soin Hezkuntzako ikasketak egiten gabiltza eta asteburu horretan azterketak genituen. Zapatuan Gas-

teizera joan ginen azterketak egitera eta domekan, partidu egunean, beste bi genituen. Ez ginen joan eta azterketa egunak aldatu genituen. Burua partiduan izan dugu. Ehunetik ehuneko konpromisoa izan du talde osoak.

Conquenseren kontrako lehen kanporaketa galduta, igoera fasea asko luzatu da. Hilabete gehiago iraun du. Tentsio handia zeneukaten barruan pilatuta?

M.P.: Cuencan lehen kanporaketa galdu genuenean burumakur geratu ginen, baina entrenatzaileak [Igor Nuñez] gogoratu zigun bigarren aukera bat geneukala eta aukera hori geuk irabazi genuela, ligako txapelkun geratuta. Domekan berdina errepikatu zigun.

Zein izan da igoera lortzeko sekretua?

A.E.: Talde lana da gu identifikatzen gaituen ezaugarri nagusia. Partiduz partidu joan gara. Ligak aurrera egiten zuen heinean, bolada onari eusten geniola ikusten genuen eta lehenengo geratzeko borrokatu gara.

Zaleek taldeagaz berriro bat egitea izan da zuzendaritzaren azken urteetako helburua. Hori lortu dela uste duzue?

A.E.: Igoera lortzeko beste faktore bat zaleen laguntza izan da, dudarik barik. Hiru kanporaketetan zaleen partetik jaso dugun erantzuna txapela kentzeko modukoa izan da.

M.P.: Denboraldian zehar ere lagundu digute. Beste urte batzuetan baino sarrera hobeak egon direla uste dut. Batez ere partidu inportanteetan jende dezente etorri da.

Datorren denboraldian Durangoko Kulturalen jarraituko duzue?

M.P.: Entrenatzaileak gura badu, nire asmoa hemen jarraitzea da.

A.E.: Baita neurea ere. Entrenatzaileak aintzat hartzen banau, jarraitzeko asmoa dut. Igotzeak eman duen poztasuna hor dago.

M.P.: Egindako urteagaz erakutsi dugu Bigarren B Mailan jokatu dezakegula. Lehiakorrak garela erakutsi dugu. Ez dut uste entrenatzaileak taldea askorik ukituko duenik hurrengo denboraldirako.

Asteko kirolaria



JUNE ARBEO SARRIUGARTE

Iurreta, Atletismo

“Orain gutxi Munduko Txapelketan egongo nintzela esan balidate, ez nuen sinetsiko”

Uztailean bere lehenengo Munduko Txapelketan parte hartzeko aukera izango du Arbeok

proban ezarrita zegoen Euskadiko marka hautsi zuen maiatzean, eta joan zen asteburuan Espainiako txapelkun gelditu zen proba berrean.

Zelan joan zen txapelketa?

Txapelketa oso ondo joan zen. Saso betean iritsi nintzen eta lehenengo postua lortzeko borrokatu gura nuen, hasieran aurrean ez irtetea erabaki nuen. Hala ere,

lasterketa nahiko arin irten zen. Azken lau itzulietan aurrera egitea erabaki nuen eta bakarrik helmugaratu nintzen.

Maiatzean Espainiako txapelketa zenuela helburu esan zenion ANBOTOri. Beraz, pozik egongo zara lortutakoagaz.

Oso pozik nago asteburuan lortu dudana. Espainiako Txapelketa hau urteko helburu nagusia zen eta irabaztea lortu dut.

Hala ere, maiatzean 3.000 metroko oztopodun proban ezarri zenuen marka haustea ez zenuen lortu.

Bietako bat aukeratu behar nuen: edo marka haustera joan edo urrearengatik borrokatu. Marka hautsi gura banuen, hasieratik lasterketa buruan jarri beharko nintzen eta lasterketa luzea egin ahal zitzaidan.

Munduko Txapelketan parte hartzeko hautatu zaituzte.

Orain gutxi Munduko Txapelketan egongo nintzela esan balidate, ez nuen sinetsiko. Niretzat hau amets bat betetzea da eta oraindik sinetsi ezinda nago. Elkarrizketa hau aprobeztatu gura nuke David Garcia entrenatzaileari eskerrak emateko. Beragaz astiro-astiro eta gogor lan egin dudalako lortu baitut hau guztia. Domina hauek berari esker dira.

Munduko Txapelketara ze helburugaz zoaz?

Badakit izugarritzko maila egongo dela eta nire helburu nagusia nire mailarik onena ematea eta neu gustura geratzea izango da. Horrez gain, Munduko Txapelketan disfrutatzea eta esperientzia bizitzea dut helburu.

Durangaldea Running taldeko June Arbeok kalitatezko salto bat eman zuen orain urtebete inguru. Gainera, 3.000 metroko oztopodun

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA
IBAIZABAL. Apartamentua. Erdi erdian. Ganbara handi bat veluxegaz. garajea. **199.000€**
IURRETA. Dena berria. 2 logela. Bainugela. sukaldea. Egongela-jangela. Terraza. **120.000€**
SAN IGNACIO. 104m². 3 logela. 2 komun. Sukaldea-jangela. Egongela. Ganbara eta garajea. **260.000€.**

// ETXEBIZITZAK SALGAI
LANDAKO (TXIBITENA). 100m². 4 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekkitokia. Egongela zabala. Ganbara. Garajea. etxe osoa kanpora begira. **215.000€**

AVDA. MONTEVIDEO. 2 logela. 2 komun. Sukaldea esekitokiagaz. Egongela. Terraza zabala. Trastelekua. Garajea. **222.000€**

ASK. ETORBIDEA. 100m². 3 logela. 2 Komun. Sukaldea. Esekkitokia. Egongela. Terraza. Trastelekua. **220.000€**

SAN IGNACIO. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekkitoki. Egongela terrazagaz. Trastelekua eta garajea. **246.000€**

ANTSO EZTEGIZ. 90m. 3 logela. bainugela. Sukaldea. Egongela eta terraza. **155.000€.**

ANDRA MARI. Erdigunean. 3 Logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Galeria. Trastelekua. **125.000€**

J. ICIAR. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Eguzkitsua. Pisu osoa kanpora begira. **125.000€**

ASK. ETORBIDEA. 2 logela. (lehen 3 logela.) Bainugela. Sukaldea-jangela. Egongela. Terraza. **177.000€**

M.TORRE. Pisu altua. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekkitokia. Egongela. Terraza. Ganbara. Garajea.

MATIENA. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Igogailua. Eguzkitsua. **130.000€**

MATIENA. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. **79.600€**

ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza. Igogailua. **129.000€**

DURANGO. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Pisu osoa kanpora begira. **95.000€**

BERRIZ. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. **65.000€**

ZALDIBAR. 2 eta 3 logela. Eguzkitsua. Pisu osoa kanpora begira. Berriztuta. **99.000€**

F.J. Zumarraga 130m². 3 logela. (Logela nagusia handia) 2 komun. Sukaldea-jangela. Egongela. 2 Terraza. Ganbara. 2 kotxeentzako Garaje itxia. Trastelekua aukeran. **285.000€**

LANDAKO ETORBIDEA. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Ganbara. Trastelekua eta garajea. **ORAIN 206.000€**

ASK. ETORBIDEA. Erdi erdian. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekkitoki. Egongela. Ganbara. Garajea. Terraza 66m.

IURRETA. 2 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela-jangela. Kafefazioa. **114.000€**

MADALENA. Duplex aukeran. Azkenengo solairua. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekkitokia. Egongela. Garajea. **ORAIN: 260.000€**

J.A. AGIRRE Azkenengo solairua. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekkitokia. Egongela terrazagaz. 2 Ganbara. Garajea.

BERRIZ. Txalet atxikia. 4 logela. 4 komun. Egongela 2 terrazekin. Sukaldea zabala. Garajea eta Txokoa. **410.000€**

// LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN
ARTEKALE 100m². Etxebizita egiteko aukeran **94.000€ / neg.**

LOCAL INVERSION. 50m². EGOKITUA. **85.000€.**

DURANGO. TABERNA martxan. 95 m². **138.000€**

ZALDIBAR. Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudio izateko. 24-35 m². EKONOMIKOA.

F.J. ZUMARRAGA. AUKERA. 114 m². SALMENTA **150.000€** (Neg.)
IBAIZABAL. 50 m². Guztia jarrita. SALMENTA / ALOKAIUA. **500 €.**
ASK. ETORBIDEA. Garaje itxita. **18.800€**

// ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN
DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean **650€-tik** hasita.

ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO. Laubideta kalean. Paregabeko pisua, 3 logela, komun bi, sukaldea, egongela, izugarriko terraza 200 m² koa, garaje bi, ganbara eta trastelekua.

DURANGO. Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90 m² ganbararekin.

DURANGO. Montebideo kalean, logela biko pisua, Bi komun, eskatza, terraza, garaje eta trasteroa, berria.

DURANGO. Hegoalde kalean, izugarriko adosatua salgai, 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza, lorategia, ezin hobea.

BERRIZ. Etxebizita guztiz berriztua, 3 logelarekin, bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizita, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, bainugela, esekitokia, ganbara, garajea bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizita 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizita, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

// LURSAILAK SALGAI
ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m²-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliarr bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m² inguruko azalerarekin.

// BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
MAÑARIA. Izugarriko baserria salgai. Herria bertan. Lursaila 3.000 m². Bizitzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO. Aldape auzoa. Baserria berrizatzeko, 3 hektareako lursaila. Prezioa **125.000.-€**

ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m²-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berrizatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. la berria, estreinatzeko.

BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan

// BULEGOAK ALOKAIUAN
ABADIÑO. 40 m²-tik gorako bulegoak, 350 €-tik.

// LOKALAK ALOKAIUAN
Alde zaharrea, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.

// LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA. 460 m²-ko lokala salgai, Bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

www.inmoduranguesado.com

DURANGO 3 logela 87 m²

MARTXOAREN 8KO: 87m². 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, guztiz jarrita eta dotore, garaje eta ganbara (8m²)
260.000€

DURANGO 2 logela 80 m²

AVDA LANDAKO: 80 m². 2 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 bainugela, balkoia. Ganbara zabala eta garajea.
250.000€

DURANGO 3 logela 85,75 m²

ASKATASUN ETORBIDEA: 79,50 m², egongela, sukaldea jarrita, despentsa, 3 logela eta 2 komun. etxe osoa kanpora begira.
230.000€

DURANGO 3 logela 85,71 m²

ERRETENTXU: 85,71 m². hall, egongela, sukaldea jarrita, 3 logela, bainugela eta komuna, 2 balkoi, egogailua, mendabaldea, ikuspegi ezin hobea, oso eguzkitsua.
183.000 € / 199.000 € garaje itziagaz

DURANGO 2 logela 1 komun

ASKATASUN ETORBIDEA: 68,88 m², sukaldea jarrita, egongela, bainugela eta 2 logela
177.000€ / NEG.

MAÑARIA 3 logela 98 m²

MAÑARIA: 98 m², egongela, sukaldea jarrita, 3 logela eta 2 bainugela, trastelekua.
195.000€ / NEG.

DURANGO 3 logela 82 m²

GARAJE ETA GANBARAGAZ

Komentu kalea 82m² erabilgarri, 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta ganbara. **255.000€** +BEZatik aurrera.
255.000€

// DURANGO
ANBROSIO MEABE 3 logela, egongela, sukaldea balkoiagaz, bainugela 2, igogailua, ganbara eta garaje itxia. **270.000€/E.E.Z=F**

BARRENKALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta igogailua. **126.300 €/E.E.Z= G**

ERRETENTXU 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **210.000 €/E.E.Z=E**

ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta igogailua. **205.000 €/E.E.Z=E**

EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. **321.500 €/E.E.Z=F**

KOMENTUKALE Logela 1, sukalde-egongela, bainugela, ganbara eta igogailua. **175.000 €/E.E.Z=F**

LANDAKO ETORBIDEA 2 logela, sukalde-jangela, egongela, 2 bainugela, 2 balkoi, igogailua eta garajea. **LEHEN 267.800 € ORAIN 255.000€/E.E.Z=E**

MIKELDI 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta ganbara. **LEHEN 270.000€ ORAIN 260.000 €/E.E.Z= E**

MURUETA-TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua, garajea eta trastelekua. **290.000 €/E.E.Z=E**

PLATERUEN PLAZA 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. **LEHEN 275.000€/ ORAIN 260.000€/E.E.Z=E**

SANTASUANOSTE KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoi itxia, igogailua, ganbara eta garajea. **LEHEN 240.000 €/ORAIN 220.000€/E.E.Z=E**

SASIKOA 4 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoi itxia, igogailua, garajea eta ganbara. **220.000 €/E.E.Z=G**

ZEHARKALE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **150.000 €/E.E.Z Bidean**

ZUMALAKARREGI 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. **695.000€/E.E.Z= E**

// ABADIÑO
ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000 €/E.E.Z Bidean**

ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **175.000 €/E.E.Z=E**

FERIALEKU 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. **LEHEN 190.000 €/ORAIN 175.000 €/E.E.Z=G**

ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. **309.000 €/E.E.Z= F**

// BERRIZ
ANDIKONA AUZOA Berreraikitzeo baserria, **460.000€**

BERRIZBEITIA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 €/E.E.Z= F**

ELIZONDO AUZOA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, komuna eta balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. **142.000 €/E.E.Z= G**

// ELORRIO
ELIZBURU KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. **199.000 €/E.E.Z= E** Garaje itxia aukeran

SAN PÍO logela 1, egongela, sukaldea, bainugela, komuna eta igogailua. **179.900€/E.E.Z=G.**

OTXANDIO
GOMILAZ AUZOA Baserria lurzoruagaz, **350.000€**

// BERRIA
// DURANGO
ASKATASUN ETORBIDEA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€/E.E.Z=F**

MURUETA TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua, garajea eta trastelekua. **288.000 €/E.E.Z=E**

Zorion Agurrak

zorionak@anboto.org · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO - Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Amets (726)**: Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu Iurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



MIREN RODRIGUEZ

Gosaria:
otordurik garrantzitsuen

Izugarri maite dugu gosaltzea, baina ez ditugu ongi aukeratzeko goizeko lehen orduan jaten ditugun elikagaiak. Zenbait ikerlanen arabera, gure gosarien kalitatea nabarmen hobetu daiteke nutrizioaren ikuspegitik. Opilek leku handiegia hartzen dute, eta, berez, salbuespen gisa jan behar lirateke. Eguneko lehen otordua oso garrantzitsua da. Esaerak ere esaten du: "Gosaldu ezazu errege batek bezala, bazkaldu printze batek bezala eta afaldu eskale batek bezala". Baina komeni da ongi aukeratzeko zer-nolako elikagaiak jarriko ditugun gosaritan.

Fruta zukua. Oso ohikoa izaten da gosaritan fruta zukua hartzea, batez ere etxean egina. Zukua maiz hartzeak, ordea, handitu egiten du gizentasuna izateko arriskua. Fruta zukutuaren azukreak oso azkar sartzen dira gure gorputzean eta, itxuraz, suspertu egiten dituzte gantzak metatzeko mekanismoak; horretaz gain, ez du eragiten elikagai solido batek eragiten duen asetasun bera. Horrela, bada, gosaritan egunero fruta pieza bat jatea da onena.

Esnea edo esnekiak. Gosaritan oso ohikoak izaten dira esnea, jogurta edo gazta. Ezinbestekoa al da esneki bat hartzea gosaritan? Ez, besteak beste ez dagoelako ordezkazina den elikagairik, amaren esnea ez bada. Baina, horrek ez du esan nahi kaltegarriak direnik, zenbait herritarrek uste duten bezala. Esnekiek ez dute handitzen bihotz-hodietako arazoak izateko arriskua, ezta minbizia eta beste gaitz kroniko batzuk izateko ere. On egin!



Zorionak, **Oihan!** Bihar, ekainak 30 zure seigarren urtebetetzea ospatuko dugu. Musu erraldoi bat etxeko guztien partez.



Txaber laztana, zorionak. Ze ondo pasau gendun! Mosu bat danon partez.



Ekainaren 1ean **amama Lurdesen** urteguna izan zen, eta ekainaren 29an **Iratik** 9 urte egin ditu. Zorionak bioi eta patxo potolo bat familiaren partez. Nozko holako beste entsalada eder bat, Irati?



Zorionak, **Oihan** zure zortzigarren urtebetetzean. Oso ondo pasa gaurko eguna eta ospakizuna zure familia eta lagunekin.



Durango udalekuetako neska-mutikoek ANBOTO bisitatu zuten astelehenean. Eskerrik asko 'detektibe' taldeari.



Botikak

BARIKUA, 29 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Murretatorre 2C - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 30 · 09:00-09:00

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-13:30

UNAMUNZAGA Murretatorre 2C - DURANGO

BAZAN DIAZ Urribarri 5 - DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO

EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 1 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 2 · 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 3 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 4 09:00-09:00

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 5 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Urribarri 5 - DURANGO

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrangoetxea 5 - ZORNOTZA

R.P.S. 214/06
A. Urreta podólogo

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ



Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Zure iragarkia jarri nahi duzu?

94 621 79 02

anboto komunikabideak

“Espazio txikietan hasi ziren talde handiak ere, eta umiltasun hori ez da inoiz galdu behar”

Musika kontzertuak antolatu, eta munduko estilo askotariko taldeak sustatzen ditu Oihana Alberdik. Afizio moduan hasi zena ofizo bihurtu du irakasle berriztarrak

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Irakaskuntza eta musika maite ditu. Ogibidea du lehena eta pasioz bizi du bigarrena. Hala ere, jakingura asetu beharrak hainbat kausatan murgildu du. Erratzera ausartu behar dela uste du, batzuetan apustu zailak eginez. Musika talde bat aukeratzeko eskatuta, izukaitz aipatu du. Mariasun Iturriagagoitiak abesten zuen bertan, erreferente izan zuena bere amagaz batera.

Saltsa guztietako perrexila zara...

Hala entzun dut beti. Beti izan dut jakingura handia, eta batean eta bestean aritu naiz ikusmin hori asetzeko. Zerbaitek erakarritz gero, hurbildu eta probatzea da onena. Gauza asko gustatu izan zaizkit eta aukeratzea zaila egin zait.

Zer duzu orain esku artean?

Irakaskuntza eta musika, musika kontzepturik zabalenean. Arlo sozialagaz lotutako gai askorekiko interesa izan dut beti. Jaio garen tokiak, inguruak eta egoerak eragina du gure izaeran, eta horrek eta nire jakingurak hainbat ekintza eta kausa lantzerantz eramanez. Beti endreduan ibili naiz, gauzak egiten, sortzen: begirale lez, irakaskuntzan zein okupazioagaz, kulturartekotasunagaz edo hezkidetzagaz lotuta... Horrek askotariko jendea eta espazioak ezagutzera eramanez. Asetu, bete egiten zaitu horrek.

Musikak bete egiten zaitu?

Ezinbestekoa dut. Ez dut ulertzen bizitza musikarik barik, onurak baino ez dizkiot ikusten. Denean dago musika, sonoritatea, entonazioa, erritmoa... Pertsona oso sentibera naiz, eta musikak barrenak astintzen eta asetzen lagundu dit.

Irakaslea zara, baina musika sustatzailer lez ere ari zara. Nola hasi zinen?

Zerbait lortzeko bideak sortu behar

izan ditugu hemen. Beti ibili naiz endredatzen, batean edo bestean, eta horri esker jende asko ezagutu dut; ikusi dut zein eskaintza indartsua sortu daitekeen. Talde bat ginen hasieran, kontzertuak eta ekintzak antolatzen genituena, eta gero neuk jarraitu dut. Munduko taldeak eramaten zituen hainbat pertsona ezagutu nituen eta neu ere animatu nintzen. Norbaitek nigan sinetsi zuen, harremanak sortu ziren eta ohartu barik urteak aurrera joan dira. Ez kontzertuak bakarrik, beste edozer sortzeak eta antolatzeak sortzen didan ilusio hori transmititu gura dut.

Bigarren ogibidea duzu musika?

Pasioz bizi dut hau dena, eta kosta egiten zait ogibide lez hartzea. Gauzak antolatu egin behar direla uste dut, eta zenbait gunetan dirua ez da traba. Autogestioan sinesten dut eta bertako espazioen aldeko apustua—gaztetxeak, taberna txikiak, lagunarteko guneak...— egitea garrantzitsua da, zuzeneko musikaren aldekoa naiz. Harremana gertukoagoa da. Publikoaren eta taldearen arteko komunikazioa sortzen da. Espazio txikietan hasi ziren talde handiak ere, eta umiltasun hori ez da inoiz galdu behar.

Talde berriei lekua egitea ere oso garrantzitsua da.

Itxiak gara musikari dagokionez?

Ez. Badaude es-tilo batzuk oraindik nagusi dire-

nak, baina eskaintza berria ematea eskertu didate.

Emakume izateak bidea zaildu dizu?

Afizioak eta ofizioak ez du generorik. Baina ikusten ez dena ez dugu sentitzen, naturalizatzen. Musika munduan gizonezko asko ikusi ditugu, ez hainbeste emakumeak. Baina egon badaude. Ez dira ikusteko moduan jarri, eta ematen

du ikusten ez dena ez dela existitzen. Musikan eta beste arlo askotan gertatzen da. Denon eginkizuna da gizarteak jarritako ereduak apurtzea. Eta, horretarako, eredu berriak behar ditugu. Entzun dut erreferente naizela eta beldur apur bat ematen dit berba horrek, lotsa ere bai. Eredu horiek apurtu arte neuk ere sinetsi dut ez naizela gai. Orain nire proiektuan sinesten dut, konfiantza gehiago dut.

Zenbat talde daramatzazu?

Askok, estilo askotakoak —rock&roll, heavy, hard-core, punk, folk...—. Europa, AEB, Japonia... leku askotako taldeen lan egin dut, eta Euskal Herrian eta estatu espainiarrean mugitu naiz; kanpoan ere bai. Beti gura izan dut nire taldea sortu, baina badut halako beldur eszenikoa. Ea egunen batean...

Herriko jailetan, non ikusiko zaitugu?

Behar nauten tokian. Dantzariak ikusteko ohitura ere badugu, eta sarri dantzara atera gaituzte ama eta ni. Euskal dantzen ikastaroa egin dugu.



Oihana Alberdi Elorriaga
Irakaslea eta musika sustatzailea
Berriz | 1977

Lauhortza

Amaia Ugalde Begoña
Kazetaria



“Manada” berriak

Antza, Kanariar Uhartetan talde bortxaketa egin duen gizon kuadrillak Nueva Manada izena ipini dio bere taldeari. Lerdo kuadrillari ideia ona iruditu zaio Sevillako boskoteak sanferminetan egin zuena, eta taldean dibertitzeko antzerako plana egin zuten.

Eta, horrela, astero-astero sexu eraso eta bortxaketen inguruko albisteak irakurtzen ditugu. Haserretzen gara, sumindu, barrua pizten zaigu. Gertatzen dira, batzuk epaitzen dituzte, fidantzapean askatu, eta hemen, antza, ez da ezer gertatzen. Sua.

Sumindura edo indignazio hau ez dakit gizon lerdoengana zer eratan helduko den: ikusten dituzue kaleak beteta? Entzuten dituzue danborhotsak, oihiak? Zer sentitzen duzue? Akaso zuen zakilaren bueltan egiten du bira munduak, plazera albokoa zapalduz lortzeak eszitatzen zaituzte?

Eta emakumeak zer? Ez dira pertsonak? Ez pentsatu zuen ama, arreba edo alabengan; sarri entzun dut diskurtso hori, eta ez dit balio, ez izan paternalistak. Pentsatu zuek bezalakoxe pertsonak direla parrandan irten diren horiek, zuek besteko askatasuna dutela ondo pasatzeko, plazera lortzeko, eta ezetz esateko. Esaten dute belaunaldi frustratuak direla gaurkoak, ezetza arlo guztietan onartzea kostatzen zaienak. Bada, egin ditzagun masterrak.

Badatoz berriro sanferminak. Eta udako milaka jai. Haserre honek duen energia guztia baliatu dezagun geure burua indartzeko, lozorroan ez egoteko, askatasuna aldarrikatzeko eta etor litezkeen manada berriei haginka egiteko.



maristak

Ikastetxea - Durango

etorkizun oso bat

www.maristak.com

946810058
www.maristak.com

Batxilergoa, Goi-Mailako Heziketa-Zikloak, Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Zikloetarako Sarbide Proba, Enplegurako Formakuntza



HETEL



MATRIKULAK
Batxilergoa
Ekainak 20tik Uztailak 6ra
Zikloak
Uztailak 12tik 18ra

Ezagutu nahi bagaituzu, deitu eta zita bat eskatu!